IRITZIA: TOKIKO ALDIZKARIAK ETA PUBLIZITATEA /7


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko urtarrilaren 17a • IV. urtea • 94. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




Goienka2a

**BILLY PETERSEN, 'C.S.I.' TELESAILEKO PROTAGONISTA, OÑATIN BIZI IZAN ZEN**

Harekin egin dugu berba /13-15



*"Alaba Maitek eta biok sentimenduz betetako lotura dugu Oñatirekin"*

*"Hemendik bi urtera-edo, Euskal Herrira itzuli gura nuke"*

*"C.S.I-n beti gauza berriak ikasten ditut; horregatik dut gustuko"*

**PILOTA**

**Zezeaga eta Elkoro: bi debagoiendar Binakako Txapelketan /11**

**JUAN JOSE ARRIETA**

*"Biribiltzeak ilundu egin ditu euroaren abantailak"* **/8-9**

ASTEKO GAIA: ETXEBIZITZA ARAZO BIHURTU DA DEBAGOIENEAN /2-3

# Etxebizitza ibarrean, gero eta garestiagoa eta urriagoa

Espekulazioa dela, eskaintzaren eta eskaeraren arteko desoreka dela… Kontua da etxebizitza luxu bihurtzeko bidean dagoela geurean. Ibarrean metro koadroa 2.000 eta 2.675 euro artean saldu zuten 2002an. Horrez gainera, ez dago premia dutenen beharrak asetzeko behar adina etxe.

Erakundeak hasi dira konponbidea bilatzen. Jaurlaritzaren politika da babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea, eta Debagoieneko arduradunek bere egin dute filosofia hori. Hala, aurten egingo dituzten etxebizitzen ia erdiak (%47, zehatz-mehatz) babes ofizialekoak izango dira.

■ *Etxe gehiago egitea eta babestutakoak sustatzea da erakundeen erantzuna*

## DEBAGOIENA

### Iaz, 2001ean baino %7,9 ume gehiago jaio ziren ibarrean

Debagoieneko eskualde ospitalean %7,9 handitu zen jaiotzen kopurua iaz. Guztira, 572 ume jaio ziren iaz eskualde ospitalean. Horietatik %14,5, hau da, 83 ume, zesareaz jaio ziren, aurreko urteko kopurua ia bikoiztuta. Hilabete ugarienak, bestalde, urria eta apirila izan ziren Debagoienean. Urrian 61 ume jaio ziren eta apirilean, 59. Gipuzkoan, berriz, udaberrian maiatza eta udazkenean urria izan dira hilabete oparoenak, Euskal Autonomia Erkidegoan moduan. **/4**

## LEINTZ GATZAGA

### Toki Eder elkartea kiskalita geratu da sutearen ostean

Joan den zapatu iluntzean, 18:30 aldera, sua piztu zen Leintz Gatzagako Garro jauregian. Toki Eder elkartean bestetan baino ke handiagoa zegoela konturatu ziren elkartean zeuden herritarrak. Gero, tximiniatik garrak irteten ari zirela ikusi zuten. Hiru solairu ditu jauregiak; bigarren solairuko tarimatik kea irteten ari zela-eta, herritarrek sua itzaltzeko lehenengo ahalegina egin zuten. Suhiltzaileek hiru ordu behar izan zituzten sua itzaltzeko. **/5**




OXEL EROSTARBE

## Bukatu da kalbarioa

Eguaztenean zabaldu zuten Soraluzetik Maltzagara arteko errepidea, astebetez itxita egon ondoren. Izan ere, Eibar-Gasteiz autobideko Larreategiko zubibidea konpontzen ibili dira. Konponketa lanak direla eta, zirkulazioa Elgetatik bideratu dute, eta inoiz ikusi bako ilarak sortu dira han. Egunero 15.000 ibilgailu inguru pasatu dira Elgetatik, ohikoa baino hamar bider gehiago. Eguenean, lanak amaituta eta kaminoa zabalduta, lasaiago ibili ziren bai elgetarrak bai Maltzagako errepidean ibiltzen direnak ere. Ondorengo egunotan, baina, zirkulazioa eten egingo dute ordu batzuez.




Beti dago norbait zutaz arduratzen.

Udalaitz

Volkswagen service

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70


DEBAGOIENA/4 • HERRIZ HERRI/5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Etxebizitza: gare

## Debagoienenean eskaera altuak eta eskaintza baxuak prezioak igo dit

LEIRE KORTABARRIA

Debagoienenean etxebizitza arazo larri bilakatu da. Azken urteotan, etxebizitzaren merkatuak izan duen goraldiak, lurzoruaren prezio altuak eta espekulazioak metro koadroaren prezioa bikoiztu dute. Etxe agentzien arabera, etxe berrietako metro koadroa 2.500-1.800 euro bitartean dago Debagoienean.

Hainbat etxe agentziatako adituek zera diote: "Geurean langabezia tasa baxua da, eta gazteak agudo hasten dira etxebizitza bila. Eskaintzaren eta eskaeraren artean desoreka handia dago". Debagoiendarrek etxe eraiki berria nahi izaten dute, baina behar adina ez daudenez, bigarren eskukoen bila hasten dira. Hortaz, horien eskaera ere igo egiten da, eta, era berean, baita prezioak ere. Bigarren eskuko etxea berria bezain garestia da.

*Aurten, 1.604 etxebizitza egingo dituzte ibarrean; %47, babes ofizialekoak*



Adituen esanetan, Debagoienean beste leku batzuetan baino eskaera handiagoa dago; eskaintza, ordea, baxua da.

**BABES OFIZIALEKO ETXEEN ALDE**

Erakundeak hasi dira irtenbideak proposatzen. Ibarrean, Arrasateko Udalaren asmo handiko plana da nabarmenena, han inon baino larriagoa da-eta egoera. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko etxeen aldeko apustua egin du, eta ibarrean ere lagun asko dago Etxebide zerbitzuan izena emanda: 2001ean, 5.200 debagoiendar, hain zuzen. Ibarrean ere politika hori ezarriko dute: 2003an, sustapen publikoko 148 etxebizitza zozkatuko dituzte. Kontua da, baina, hemen ere eskaera eskaintza baino askoz ere altuagoa dela;

PREZIOAK IBARREAN

### Ibarreko garestiena, Aretxabaleta, eta merkeena, Antzuola

**Bigarren eskuko etxebizitzen prezioa asko igo da; ia-ia, berriak bezain garestiak dira. Eta, zenbat eta etxe txikiagoa, orduan eta garestiagoa metro koadroa. Etxe agentziek emandako prezioak dira.**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta | 2.675 € |
| Oñati | 2.560 € |
| Arrasate | 2.500 € |
| Aramaio | 2.475 € |
| Eskoriatza | 2.250 € |
| Bergara | 2.250 € |
| Leintz Gatzaga | 2.200 € |
| Elgeta | 2.030 € |
| Antzuola | 2.000 € |

ARRASATE

### Hamar urtean, 2.059 etxebizitza egingo dituzte; erdiak, babes ofizialekoak

**Udalak egindako ikerketa baten arabera, 1.850 etxebizitza eraiki beharko lirateke une honetako eskaera asetzeko, baina 2002ko urtarrilean, 102 etxekoa zen eskaintza. Etxe agentzien esanetan, metro koadroa 2.500 eurotan dago; Udalaren arabera, 2.157 eurotan.**

**Udalak Etxebizitza Politika Egitamua du abian. 2013ra bitartean, 2.059 etxebizitza eraiki gura ditu Udalak; horietatik erdiak, babes ofizialekoak edo prezio mugatukoak. Epe laburreko asmoa da Cerrajeran 476 egitea, Atxabalpen 224, Uribarrin 180 eta Zabalgunean, berriz, 177.**

BERGARA

### Erdigunean 130 etxe eta auzoetan beste 40 egingo dituzte epe laburrean

**Bergaran ere dezente eraiki da azken boladan, eta gehiago eraikitzeko asmoa dago. 308 etxebizitza egin dituzte azken bi urteotan, estazio zaharra zegoen lekuan, eta beste 96 egingo dituzte. Bestalde, San Antonio inguruan babes ofizialeko 18 etxe egin dituzte, eta beste 36 egingo dituzte.**

**Auzoetara joaz, Angiozarren hamalau etxebizitza egiteko asmoa dago; horietako batzuk hasi dira egiten. Uberan, berriz, familia bakarrendako zortzi etxe eraikiko dituzte. Osintxun babes ofizialeko hamasei etxebizitza eraikiko dituzte; guztiak, epe laburrean.**

ARETXABALETA

### Errentan jartzeko babes ofizialeko 18 etxebizitza egingo dituzte aurten

**Ibarreko herri garestiena da, baina kontuan hartu behar da azkenaldian etxe txiki asko egin dituztela eta horietan metro koadroa garestiagoa dela. Kontuak kontu, egitasmo garrantzitsuena da babes ofizialeko hamalau etxebizitza, aurten egingo dituztenak. Horiek errentan jarriko dituzte, Jaurlaritzak errentaren kultura bultzatu gura dueta. 110-145 bat euroko errenta kobratuko dute. 138 herritarrek eskatu dute babestutako etxebizitza bat.**

**Bestalde, beste auzo bat eraiki gura du Udalak. 345 etxebizitza eraikiko ditu; 220, babes ofizialekoak.**

ESKORIATZA

### 74 etxebizitza egiten ari dira, eta iaz, 48 saldu zituzten, 180.300 eurotan

**Momentu honetan, hainbat eraikuntza lan daude abian Eskoriatzan. Hain zuzen ere, 74 etxebizitza eraikitzen ari dira orain, baina ez dute uste 2004a baino lehenago bukatuko dituztenik. Horietatik gehienak, 42, merkatu librean ipiniko dituzte salgai. Beste 32ak kooperatiba baten ekimenez ari dira egiten. Bestalde, Etxebideren arabera, datorren urtean 16 babestutako etxebizitza ipiniko dituzte errentan.**

**Iaz, 48 etxebizitza jarri zituzten salgai, guztiak ere, merkatu librean. Horien salneurria, gutxi gorabehera, 2.130 bat eurokoa izan zen metro koadroko.**

# estia eta urria

## tuzte, eta erakundeek babes ofizialeko etxeen alde egin dute



OXEL EROSTARBE

hortaz, besteak beste, errenta bultzatu beharko da, guztioi etxebizitza duina eman ahal izateko.

**JESUS MARKAIDE** / DEBA GARAIA ETXE AGENTZIA

## *“Marko legalak garestitzen du hemen etxebizitza”*

**Deba Garaia etxe agentzia sareko arduraduna da Jesus Markaide arrasatearra.**



**Zuen datuen arabera, zenbat kostatzen da metro koadroa, batez beste, Debagoienean?**

Guk egin ditugun operazioen arabera, 2.430 euro inguru kostatzen da. Debagoieneko herri garestienak Arrasate eta Aretxabaleta dira; Eskoriatzan eta Bergaran, %10-15 bat merkeagoak. Horrenbestez, Bartzelonan edo Pauen baino garestiagoa da hemen etxebizitza.

**Zerk garestitzen du hainbeste etxebizitza geurean?**

Eraikuntza gastuak oso parekoak dira Arrasaten edo Pauen. Lursailak ere hasierako balio bera du; hortaz, konklusioa da lursaila eraikuntzarako apropos egiten duen marko legalak garestitzen duela gehien. Horrek egiten du hemen etxebizitza Pauen baino bi aldiz garestiagoa izatea, soldatak oso antzekoak izanda.

**Babes ofizialeko etxeak ezin izango dira deskalifikatu…**

Bai, eta horrek, neure ustez, eraginkortasun handia izango du espekulazioa geldiarazteko. Baina bere alde txarra ere badu; etxebizitza bizi izateko bakarrik ikusten baduzu, ondo etorriko zaizu babestutako etxea erostea; ez, ordea, etxea inbertsio moduan ere ikusten baduzu.

**Zeren arabera aukeratzen du jendeak etxebizitza?**

Prezioak baldintzatzen du guztia. Prezioarengatik jendea gertu egoten da, adibidez, auzo ez hain egoki baten bizi izateko.

> *“Prezioak guztia baldintzatzen du; jendea gertu dago auzo okerrago baten bizi izateko”*

**SAGRA LÓPEZ** / DENONTZAT PLATAFORMAKOA

## *“Beharra dutenen %9k eros dezakete etxe babestua”*

**Denontzat plataformak behar duten guztiondako etxebizitza duina eskatzen du. Sagra López taldeko kidearekin izan gara. Ibarreko egoera larriena Arrasatekoa da, eta han egiten du lan Denontzat plataformak.**



**Arrasateko egoera oso larritzat jotzen duzue. Zer datu dituzue?**

Udalak egindako txostenaren arabera, 5.249 lagunek dute etxebizitza premia, eta horiei erantzuteko, 1.850 etxe egin beharko lirateke. Etxebizitza behar dutenen artean, gehienak 18-34 urte artekoak dira. Soldata eta lan prekarioak dituzte, eta ezin dute etxebizitzarik erosi. Hori oso larria da.

**Zer deritzezue prezioei?**

Etxebizitza premia dutenek 86.000-108.000 euro artean dituzte etxea erosteko, baina eskaera erreala 183.000 eurokoa da. Espekulazioak prezioa bikoiztu du Debagoien osoan. Arrasaten etxebizitza berri bateko metro koadroak 2.157 euro inguru balio du. Munduko leku garestienetakoa da.

**Zein iritzi duzue Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikaren gainean?**

Eusko Jaurlaritza gehiago inplikatu beharko litzateke. Europarekin konparatuta, Jaurlaritzak oso gastu sozial baxua egiten du etxebizitzaren inguruan: Europan 100 ipintzen bada, Jaurlaritzak sei ipintzen du. Etxebizitza Plana oso eskasa da: beharra dutenen %9k bakarrik eros dezakete babes ofizialeko etxea.

> *“Espekulazioak prezioa bikoiztu du ibarrean, eta munduko lekurik garestienetakoa da”*

OÑATI

### 80 etxebizitza egingo dituzte 2003an; horietatik 16, babes ofizialekoak

**Eraikuntza alorreko egitasmo garrantzitsuena, 2003an, Kalegoienean laurogei bat etxebizitza eraikitzea izango da. Oñatin ere babes ofizialeko etxebizitzen politika indarrez sartu da, eta horietatik %20 etxe babestuak izango dira. Bestalde, Udalak erdigunean hainbat eraikin eraberritzeko asmoa du, baina ez dago egitasmorik oraindik. Horrez gain, azken urteotan, Bidebarrieta auzoa sortu da.**

**Kortabarria etxe agentziako adituek diote etxebizitzen merkatuak geldiunea izan duela Oñatin, baina orain berriro hasi dela mugitzen.**

ANTZUOLA

### Aurten, 65 etxebizitza egingo dituzte eta datorren urtean, 22

**Debagoieneko herrien artean salneurri merkeenak dituzten herrien artean dago Antzuola: metro koadro berria 2.000 euro inguru kostatzen da.**

**Antzuolan ere mugimendu handia izan du etxebizitzaren merkatuak azken bi urteotan. Iaz, Sagasti auzoan 32 etxe banatu zituzten eta Aiherra kalean, 21. Aurten, Lizarraga hiribidean 13 etxe egingo dituzte; eta gune haren ondoan, beste zortzi etxebizitza; eta Buztinzurin, 44. Datorren urtean, Sagasti auzoan hamasei egiteko asmoa dago, eta sei Kalebarren-Aiherran. Horietatik 16 babestuak izango dira.**

ELGETA

### ‘Bizi kalitatea’ planaren barne, 136 etxebizitza berri izango dira

***Bizi kalitatea* izeneko egitasmoa diseinatu du Elgetako Udalak. Horren barne, honako etxebizitzak eraiki ditu: 32 etxebizitzako bi bloke, aurten banatuko dituztenak. Bestalde, Torrealdean 76 egingo dituzte; horietatik 32 babestuak izango dira, baina ez da aurreikusten datorren urtera arte bukatuta egotea. Etxebizitza babestuek 70 eta 85 metro koadro izango dituzte, eta 90.100 euroko gehienezko salneurria.**

**Horrez gainera, Salbador kale bukaeran, epe luzerako, beste egitasmo bat dago: han 60 etxebizitza eraikiko dituzte.**

ARAMAIO

### 64 etxebizitza berri egingo dituzte aurten, gehienak, babestuak

**Aramaiori dagokionez, hemen ere izan da eraikin berririk azken boladan. Udalaren datuen arabera, iaz hiru etxebizitza eraiki zituzten herri erdi aldean, eta auzoetan, beste zortzi. Bestalde, aurtengo ere badute egitasmorik: Ibarran, sei etxebizitza eraikiko dira; bestalde, babes ofizialeko 44 egingo dira Aramaion, eta familia bakarrendako hamalau.**

**Prezioei begiratzen badiegu, etxebizitza berrien kasuan, metro karratua 2.475 bat eurotan saldu da; bigarren eskukoetan, 2.120 bat eurotan. Erdi aldeko etxebizitzak ziren hauek.**

GATZAGA

### Ez dute eraikin berririk egingo, baina etxebizitza asko saldu dira

**Gatzagan, 2002an, ez dute etxebizitzarik eraiki, eta ez da aurreikusten aurten berririk egingo dutenik. Hala ere, horrek ez du esan gura etxebizitzaren sektorean ez denik jarduerarik izan, erabilitako zenbait etxe saldu dira-eta oso epe laburrean. Eta ez merke, gainera: 2.200 euro ingurutan saldu da metro koadroa. Babes ofizialeko etxebizitzak 108.000 euro ingurutan saldu dituzte.**

**Duela sei bat urte, ibarreko herri handiagoetako jende dezente joan zela hara bizi izatera. Saldutako etxe gehienak, orduan, ibarrekoek erositakoak ziren.**




XABIER URZELAI

Debagoienean ere egin gaitezke Korrika-laguntzaile, 10 euroren truke; Arrasateko AEK euskaltegian, esate baterako.

# Mauletik Iruñera, 'Herri bat geroa lantzen' leloa zabalduko du Korrikak

*Korrika-laguntzaile egiteko egitasmoa da XIII. Korrikaren berritasuna*

OXEL EROSTARBE

**Apirilaren 4an ekingo dio bideari XIII. Korrikak. Hasiera Maulen izango duen Korrikaren berritasuna Korrika-laguntzaile egiteko egitasmoa da. Debagoieneko zenbait herritan salgai daude Korrika-laguntzaile egiteko txartelak.**

Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta gau eskolen eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua batzea ditu helburu Korrikak. Apirilaren 4an irtengo da, Mauletik, eta apirilaren 13an amaituko da, Iruñean.

### KORRIKA-LAGUNTZAILE KANPAINA

Aurtengo Korrikaren berritasuna Korrika-laguntzaile kanpaina da. Hamar euroren truke, egitasmoan parte hartuko duenak Korrika-laguntzaile dela adieraziko duen txartela eta XIII. Korrikaren irudi den tximeleta baten pina eskuratuko ditu. Eta, AEKri laguntzeaz gainera, % 10-15eko deskontuak izango ditu Euskal Herriko hainbat denda eta zinematan. Debagoienean, Arrasaten eta Bergaran egin gaitezke Korrika-laguntzaile. Arrasaten, euskaltegian, AEDn, Hire dendan, Iratin, Basatin, frontoian, Ziorlan eta Kanpazarren lor daitezke txartelak. Bergaran, berriz, euskaltegian, Jardunen, Pol-Polen eta Arranon. Beste herri batzuetan laster jarriko dituzte salgai Korrika-laguntzaile txartelak.

# 572 ume jaio ziren Debagoieneko eskualde ospitalean iaz, 2001ean baino %7,9 gehiago

MARIA AGIRRE

Debagoieneko eskualde ospitalean %7,9 handitu zen jaiotzen kopurua iaz. Guztira, 572 ume jaio ziren iaz eskualde ospitalean. Horietatik %14,5, hau da, 83 ume, zesareaz jaio ziren, aurreko urteko kopurua ia bikoiztuta. Hilabete ugarienak, bestalde, urria eta apirila izan ziren. Urrian 61 ume jaio ziren eta apirilean, 59. Gipuzkoan, berriz, udaberrian maiatza eta udazkenean urria izan dira hilabete oparoenak, Euskal Autonomia Erkidegoan moduan. Badirudi, bestalde, negukoak izaten direla hilabete urrienak.

Debagoienean moduan, orokorrean hazi egin da jaiotzen kopurua. Gipuzkoan, esate baterako, %6 inguru hazi zen iaz jaiotzen kopurua. Euskal Autonomia Erkidegoan, ostera, % 7,7.

## BAILARAN LABUR

### Aurreko ikasturtean baino %13 ikasle gehiago ariko dira aurtengoan UNEDen

Aurtengo ikasturtean 1.700 lagun ari dira ikasten Bergarako UNEDen, aurrekoan baino %13 gehiago. Unibertsitate horretako arduradunen esanetan, gorakada nabarmen horren arrazoiak bi dira: batetik, hainbat ikasgai internetez egin daitezkeela, eta, bestetik, ikasketa berriak egiteko aukera eskaintzen dutela. Diotenez, teknologia berriei esker, lana asko erraztu zaie ikasleei eta, orain, ez da beharrezkoa ikastetxera joatea hainbat informazio jasotzera. /E.A.

### Tximinia batek su hartu, eta hainbat kalte eragin zituen Oñatiko Olakua kaleko 17an

Ezusteko galanta izan zuten, eguazten eguerdian, Oñatiko Olakua kaleko 13an. Izan ere, sutea izan zen etxe hartako zazpigarren solairuan. Zikinkeriaren eraginez trabatuta zegoen tximinia batek eraginda piztu zen sua, hain justu, zazpigarren solairuko etxebizitzako tximinia lehertu eta ondoko egurrezko armairu batek sua hartu zuenean. Leherketak eta ondoren piztu zen suteak hainbat kalte eragin zituen etxe hartan, baina ez zen inor zauritu. Suhiltzaileak berehala gerturatu ziren, eta segituan itzali zuten sua. Edozelan ere, badaezpada ere, Olakua 13ko bizilagunak ordu bi egon ziren kalean. Gainera, suhiltzaileek hainbat tximinia apurtu zituzten, zikinkeria non zegoen jakiteko. /E.A.

### Turismoaren gaineko berripapera argitaratu du Debagoieneko Mankomunitateak

Debagoienean turismo ekintzak bultzatze aldera, berripapera argitaratu du Debagoieneko Udalen Elkarteak. *Berriak. Turismo arloko informazioa* da berripaperaren izenburua, eta bi hilean behin banatuko dute. A4 formatuko orria da, koloretan inprimatua. Eta 1.000 ale banatu dituzte, 500 euskaraz eta beste horrenbeste gaztelaniaz. Hainbat erakundetan banatu dute. /E.A.

### Goirizelaia eta Alberdiri gaizkile elkarteko kide izatea leporatu die Levert epaileak

Aurreko barikuan, Akizen (Landak) Kristina Goirizelaia arrasatearra, Ane Miren Alberdi angiozartarra eta Carlos Sáez de Egilaz beasaindarra atxilotu zituen poliziak. Lau egun inkomunikatuta egon ondoren, martitzenean, terrorismoaren aurkako auzien ardura duen Laurence Levert epailearengana eraman zituzten. Epaileak gaizkile elkarteko kide izatea, auto lapurtua erabiltzea, armak eramatea eta nortasun agiri faltsuak eduki eta erabiltzea egotzi die. Auzipetzea baieztatu ondoren, hiru atxilotuak espetxeratzeko agindua eman zuen askatasuna kudeatzen duen epaileak. Lerro hauek idaztean, ez zegoen argi Kristina Goirizelaia eta Ane Miren Alberdi zein kartzelatara eraman dituzten. /O.E.

### Gasteizko Artium museoko enpresa ongile izango da MCC; erakusketak babestuko ditu

MCCk eta Gasteizko Artium museoak hitzarmena sinatu dute. Horrenbestez, Artium museoan antolatzen diren erakusketak babestuko ditu MCCk. Hain justu, urtean erakusketa bat babestuko du. Hitzarmena bost urterako sinatu dute. Bestalde, Artiumeko auditorioa eta beste gela batzuk erabili ahal izango ditu eta museoko fundazioaren argitalpenak jaso ahal izango ditu doan. Hala, Artium museoko lehen enpresa ongilea izango da. /E.A.






ANTZUOLA

## Heriotza baino jaiotza gehiago izan ditugu herrian 2002an

Bukatu berri dugun urtean gehiago izan dira herrian jaio diren umeak hil diren herritarrak baino: 20 ume jaio eta 15 herritar hil dira, hain justu. Biztanle kopuruak, gainera, gora egin du azken urtean: iaz, 1.900 biztanle inguru zituen Antzuolak; aurten, berriz, 1.915 bat biztanle.

Esan bezala, ez da batere ohikoa jaiotzak heriotzak baino gehiago izatea eta biztanleriak gora egitea; hori aitzakia hartuta, ETBko *Postdata* saioak Antzuolaren gaineko erreportajea eskaini zuen joan den eguaztenean. /A.I.



AINTZANE GARDOKI

LEINTZ GATZAGA

## Joan den zapatuan, su hartu zuen Toki Eder elkarteko beheko suaren tximiniak, eta Garro jauregiko lehenengo eta bigarren solairuen arteko sabaia erre egin zen

Joan den zapatu iluntzean, 18:30ak aldera, sua piztu zen Garro jauregian. Toki Eder elkartean bestetan baino ke handiagoa zegoela konturatu ziren elkartean zeuden herritarrak. Gero, tximiniatik garrak ateratzen ari zirela ikusi zuten. Hiru solairu ditu jauregiak; bigarren solairuko tarimatik kea irteten ari zela-eta, herritarrek sua itzaltzeko lehenengo ahalegina egin zuten. Suhiltzaileei abisatu zieten, eta haiek hiru ordu luze behar izan zituzten sua itzaltzeko. Beheko suaren tximiniak su hartu, eta, berotasunaren ondorioz, habe batek su hartu zuen; lehenengo eta bigarren arteko solairuen arteko igeltsuaren eta oholtzaren artetik hazi zen sua. Peritua egon zen astelehenean, eta dagoeneko hasi dira Toki Eder elkartean lehenengo lanak egiten. /A.G.

ARRASATE

## ISO 9001:2000 saria eman diote Arrasateko anbulatorioari

Bezeroari ematen dion harreraren kalitateagatik ISO 9001:2000 saria eman dio AENOR erakundeak Arrasateko anbulatorioari.

Besteak beste, harrera zerbitzua, informazio zerbitzua, administrazioaren kudeaketa, aurretiko hitzorduen zerbitzua eta zenbait errezeta emateko zerbitzua kontuan hartu ditu AENOR erakundeak sari hori emateko. Erakunde horren ustez, oro har, Arrasateko anbulatorioak bezeroek dituzten beharrak asetzen ditu. Euskalduna jauregian jaso zuten ISO saria. /U.M.

ARAMAIO

## Garzonen errekerimendua iritsi da Aramaioko Udalera

Oraingo astean oso lanpetuta ibili dira Aramaioko Udalean, Garzon epaileak eskatutako informazioa batzen. Izan ere, 1979tik gaur egunera arte, Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna talde politikoek Udalean egindako interbentzio guztien aktak eskatu dizkio Auzitegi Nazionaleko epaileak Aramaioko Udalari. Aramaion 1983an sortu zen Herri Batasuna, hortaz, azken 20 urteotako informazioa eman behar izan dute. Aramaioren kasuan, zazpi-zortzi zinegotziren gain du eragina. /U.M.

ELGETA

## Otsailaren 8an, AEBetako White Flag taldea izango da Espaloian

Gaztemaniak-ek antolatuta, White Flag musika taldearen kontzertua izango da, otsailaren 8an, Espaloian. Orain arte, Donostian, Zarautzen eta Oñatin antolatu izan ditu kontzertuak. Hala, Espaloia aretoak eskaintzen dituen aukerak direla-eta, hantxe kontzertua antolatzea erabaki zuen. Sarrerak laster jarriko dituzte salgai.

**JAI BATZORDEAREN BATZARRA**

Eguaztenean, jaiak antolatzen hasteko lehenengo batzarra egingo dute udaletxean. /OXEL EROSTARBE

BERGARA

# Herriko 35 talderen abestiak batu ditu gaztetxeak CD bikoitzean

Gaztetxeko kideek *Astindu* fantzinearen 8. zenbakia aurkeztu zuten astelehenean prentsaurrekoan. *Isiltasuna apurtzen* izena du eta herrian azken bi hamarkadetan egon diren musika talde ia guztien gaineko monografikoa da, 35 talderena, hain justu. Aldizkariaren berezitasun nabarmenena, baina, harekin banatuko duten CD bikoitza da: talde bakoitzaren kantu bana jaso dute diskoan. Azken baten, "musika taldeek egiten dutena musika izanik, aldizkaria bera bakarrik hanka motz geratuko litzatekeelako", gaztetxeko kideen hitzetan.

Zenbaki berezi hori kaleratzeko ideia irailean hasi zen mamitzen. Taldeak batzarrera deitu, eta guztiei ideia ona iruditu zitzaien CD bat kaleratzea. Hala ere, oso talde gutxik zuten ezer grabatuta. Hori horrela, hainbat aukera aztertzen hasi ziren: "Aukeretako bat izan zen taldeek grabazio estudiora jotzea, baina hainbatek ez zuten mediorik. Hortaz, gaztetxea grabazio estudio bilakatzea erabaki genuen". Hala, hiru astez, 19 taldek gaztetxean grabatu zuten euren kantua. Gainerako taldeek aurrez grabazioak eginda zituztenez, "CDrako kantu bana utzi digute".

**AURKEZPEN KONTZERTUAK**

CDaren mila kopia atera dituzte eta aldizkariarekin batera salduko dute, 6 euroan. Aurkezpen kontzertuak gaur (egubakoitza, 22:00etan) eta bihar (20:00etan) izango dira. Herriko 22 taldek hartuko dute parte. /M.B.

**Zertzelada**

***Astindu* fantzinearen osagarri da CDa. Fantzineak taldeen historia, elkarrizketak eta hainbat berezitasun jasotzen ditu; CDak, taldeen kantu bana.**

OÑATI

# Eguaztenean zabaldu zuten Konekta Zaitez Gunea Kultura Etxean

Zabaldu berri duten Kultura Etxean dago KZGunea, azkeneko solairuetan. Interneten nabigatzeko gela batek eta ikastaroetako beste batek osatzen dute gune hori. Guztira, hamazazpi ordenagailu daude: zazpi nabigatzeko eta beste hamarrak ikastaroetarako. Urtarrilaren 27an hasiko dituzte ikastaroak. Interesa dutenek, KZGunera bertara jo dezakete izena ematera; 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Dagoeneko jende mordoak eman du izena ikastaroetan parte hartzeko; ikastaro horien helburua da herritarrei Internet ezagutzeko eta erabiltzen ikasteko aukera ematea. /A.I.



DV

**Hamazazpi ordenagailu daude KZGunean.**

ARETXABALETA

## Ehun urtetik gorako bost akazia bota zituzten martitzenean

Aretxabaletako lorategiez arduratzen den enpresak bost akazia bota zituen martitzenean. Zuhaitz horiek Mitarte kalean zeuden, gaur egun eraispen lanak egiten dabiltzan Beroa lantoki zaharraren parean, hain zuzen ere.

Udaleko hirigintza teknikari Jose Mari Segoviaren esanetan, botatako akaziak gaixo zeuden, eta lurrera jausi eta kalteren bat sortzeko arriskua zegoen. Akaziak Beroa lantokia egin aurretik landatutakoak ziren; hortaz, gutxienez, 100 urte inguru izango zituen bakoitzak. /A.L.

ESKORIATZA

## Manifestazioa, 'Euskal Herrian bizitzeko eskubidea' lelopean

Bihar, zapatua, manifestazioa egingo dute *Euskal Herrian bizitzeko eskubidea* lelopean. Herriko Plazatik irtengo da manifestazioa, eta herriko kaleetan zehar ibili ondoren, plazan amaituko da. Manifestarien artean Xanti Iparragirre egongo da. Xantik orain dela ia 22 urte utzi zuen herria, eta urtarrilaren 4an, beste hamar lagunekin batera, Hego Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. Aurreskua dantzatu eta lore eskaintza egingo diote zapatuan, eta gero, bertso saioa izango da. /A.G.

## Zabalik



BEÑARDO KORTABARRIA

### 40 urte eta gero

**Osasunak laguntzen badit, 80tik gora izango ditut. Espetxean dauden hainbat euskaldunek ere izan ahalko dituzte; baina, jakina, kartzela barruko osasun-aukerak eta kanpokoak ez dira berdinak. Horrelako neurrien bidez, Espainiako gobernuak egoera usteldu nahi duela entzun nion esaten Jone Goirizelaia Batasuneko kideari. Eta ez zitzaion arrazoirik falta, horixe da eta Madrilen asmoa, egoera dagoenetan gera dadin lortzea.**

**Ez da harritzekoa. Eroso, oso eroso dago gobernu espainiarra. ETAren jarduera armatuak ez dio ikararik eragiten; alderantziz esango nuke, jarduera horren premia du bere tesi eta jarrerak berrindartzeko. Bistan denez, estrategia aldatzeko beharrik ez dauka, urteak eta urteak iraun dezake horrela. Eta ETAk ba al du beharrik? Erakundearen azken berrien arabera (urtarrilak 15, *Gara* egunkarian), ez du hartutako konpromisoa eta estrategia aldatzeko asmorik. Beraz, ez du beharrezko ikusten. Nik baietz uste dut. Izan ere, ez dirudi ETAk armen bidez estatua jarreraz aldatzera behartuko duenik, eta, garrantzitsuena, zatiketa eragiten du abertzaleon artean. Hor dago gakoa, Madrilen —baita Parisen ere— zerbaiten beldur badira, euskaldunon batasunaren estrategiaren beldur direlako. Lizarra-Garaziko itunaren garaia horren lekuko bikaina izan da.**

**Hortaz, zatiketa eragiten duten faktore nagusiak desagerrarazten saiatu beharko ginateke. Bat goian aipatutako hori; bestea, EAJren epelkeria. Izan ere, inguru horretatik datorren airea ez da garbi-garbia, konfiantzarik ematen ez duen horietakoa baizik. Bada ordua EAJk esateko benetan noraino eta nola joan nahi duen.**

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### Espainiar demokraziaren 25. urteurreneko balantzea

Berriz ere euskal gizartearen aurrean azaltzen gara, Etxerat-etik azken 2002 urte honetan emandako gertakarien balorazioaren berri emateko asmoz. 2002. urtea gure ustetan atzera pausu handia izan da euskal errepresaliatu politiko eta beraien senideen eskubideei dagokienez.

Guretzat eta euskal gizarte osoarentzat egin beharreko balantzea urte honi dagokionez zera da: 641 euskal hiritar baino gehiago daudela estatu Espainiar zein Frantziarrean preso politiko gisa, gizartearen sektore desberdinetakoak izanik, herri honek izan duen zifra altuena.

641 euskal hiritar hauek, 7 herrialdetatik zehar daude banaturik eta 90 baino espetxe gehiagotan, horrela argi eta garbi geratzen delarik hainbat alditan salaturiko dispertsioak bere horretan jarraitzen duela. Espetxeraturiko euskal hiritar horietatik, 21 fisikoki jipoituak izan dira, inpunitate osoz beraiei gertaturikoa inork salatu ez duelarik. Euskal Herrian aritzen diren polizia mota guztien eskutik, 114 euskal hiritarrek torturak jasan izana salatu dute. Gure senideek bizi baldintza duin batzuk eskatzearren isolamenduan igarotako egunak milaka eta milaka izan dira, beraien ziegetan 23 ordu pasatu dituztelarik. 100 preso baino gehiago dauzkagu kondena betea dutenak, horietako batzuk 22 urte baino gehiago preso egonik, eta hauek bahiturik daude estatu Espainiarraren axolagabekeriaren aurrean eta sektore politikoaren kidetasunaz.

Dozenaka urte espetxeraturik egon arren, kaleratuak, aske daudenean heriotzaraino erasotzen zaie Ramon Gil Ostoagaren kasua bezala. Gaurko egunean oraindik ere, bere senideek mehatxuak jasan behar izaten dituzte telefonoz.

Etxerat-etik esan beharra daukagu minduta eta haserreturik aurkitzen garela instituzio eta alderdi politikoen eskutik jasotzen dugun tratamenduagatik. Izan ere, lehen eta bigarren mailako hiritarrak sortu dituzte, gatazka honen aldeko bateko edo besteko biktima zaren neurrian. Batzuen atzetik narrasten diren bitartean beste batzuk kolpatzen gaituzte. Ekonomikoki batzuk mantentzen dituzten heinean, beste batzuk multatu eta errepimitzen gaituzte. Batzuk beraien armekin defendatzen dituzte eta gure kontra darabilte.

Beraientzat eskubiderik gabeko kolektiboa gara, ez gaituzte inolako biolentzia motaren biktimatzat hartzen. Egia esan, gure senide presoen bizia ez zaiela ardura erakutsi digute, ezta gurea ere, beraz, fartsa bat baino ez dela beraien jarrera argi eta garbi dago.

Bautista Barandallaren kasuan ez dira ezer egiten ari ,lehenago Esteban Esteban Nieto, Ramon Gil Ostoaga eta berriagoa den Angel Lete Etxanizen kasuetan bezala.

Une kritiko batetan gaude, non pertsona baten bizia kolokan dagoen, eta iragarritako heriotza baten aurrean errebelatzen gara. Ezin dezakegu epaile eta politikari maltzur batzuen interesagatik Juan Bautista espetxean hil dadila utzi.Guzti honegatik eta beste behin, euskal gizarteari bere konpromisoa eta inplikazioa eskatzen diogu interes politiko guztien gainetik. Bere familiaren dei larria dugu hau, Etxerat-ek berea egiten duena, eta Euskal Herri osoari zuzendutako mobilizaziora deitzen diogu, helburu bakarra duena, Bautista Barandalla askatua izatea, orain!

Beste behin ere gure senideen bizia gizarte honen eskuetan dago, euskal Herri osoaren beharrean dago.

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

### Intxortan, gogoratuz

Urteroko ohiturari jarraituz, urtarrilaren 5ean, Intxorta gainean bildu ginen gudariak omentzeko. Giroak larregi laguntzen ez bazuen ere, 200 lagunetik gora igo ginen tontorrera. Lehenengo salda beroa banatu zen, txalaparta doinuek jendea bildu zuten, bertsolariak egunaren zergatiari kantatutakoak entzuteko. Omenaldi eta gogorapen hitz batzuen ondoren, eusko gudariak kantatuz bukatu genuen. Beherantz hasi baino lehen, denon arteko urteroko argazkia.

Elgetara heldu eta han ziren trikitilariak txikiteoa alaitzeko, giro alaiari eutsiz bazkaltzeko Espaloian bildu ginen 75 lagun, bazkal ostean trikiti kantuz berotu zen egun hotz hura. Gaur egungo egoeran, horrelako egunek garrantzi handia daukate, gure historia gogoratzeko eta gaur egun non gauden ikusteko, eta lehengoak gogoratuz, gaurko erasoei nola erantzun asmatzeko.

Penagarria hedabideen jarrera izan da, inon azaldu ez delako; gehienbat hurren ditugun medioak (GOIENKARIA eta *Goibekokale)*, ez dut uste Elgeta aldean hainbeste albiste sortzen denik halako egun baten berri ez emateko.

SEBAS ARANTZABAL
Elgeta

### Laguntza beharra

Kaixo, irakurle. Ekuadorkoa naiz. Orain dela bi urte, nire senarra Espainiako Estatura etorri zen eta orain arte behin-behineko lanak egin ditu.

Ni urtarrilaren 1ean Arrasatera heldu nintzen, nire seme-alabak Ekuadorren utzita: bata, 15 urtekoa; beste bat, 4 urtekoa; eta txikiena, 2 urtekoa. Lehenik eta behin, nire seme-alabak Arrasatera ekarri gura ditut, eta ez daukat horretarako dirurik.

Edozein laguntza eskertuko nuke. Eskerrik asko.

Gipuzkoako Kutxa:
2101 0055 67 012401570.2
Euskadiko Kutxa:
3035 0001 57 0010091579

ANGELICA GALARZA
Arrasate

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Gaia jarrita

Publizitatea euskaraz egiteko interesik badago? Gai horren gainean hainbat aditu mintzatu dira gaur, egubakoitza, Bilbon. Izan ere, *Euskarazko publizitatea eta herri komunikabideak* izenburuko jardunaldiak antolatu ditu euskara elkarteak eta tokian tokiko hedabideak batzen dituen federazioak, Topaguneak. Begi bistakoa da azken hamarkadan asko ugaritu direla hedabide lokalak eta horien irakurleak. Iragarle asko ere hedabide horiei esker hasi dira publizitatea euskaraz egiten.

PUBLIZITATEA EUSKARAZ

## Etxez etxe doan banatzen diren herri aldizkarien aurrekontuaren erdia publizitateko diru sarrerek estaltzen dute

GOIENKARIA jaso duzun honetan, Bilbon *Euskarazko publizitatea eta herri komunikabideak* jardunaldiak burutu dira, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak, Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean antolatuta. Jardunaldietako ondorioak, jakina, ezin ditut asmatu, eta beraz, hurrengo baterako gaia litzateke hori.

Hala ere, euskarazko publizitatearen inguruan lerro batzuk idazteko eskatu didate, eta Topagunean 36 tokiko aldizkari bazkide diren aldetik, sektore honen inguruko mezu positibo bat zabaldu nahi nuke.

Euskararen eta publizitatearen arteko erlazioen inguruan ezer gutxi dago idatzita, eta sarri ezintasuna eta merkatu sisteman lehiatzeko gaitasun falta errepikatzen da irakurri daitezkeen iritzietan: merkatuaren aldetik euskaldun kopuru eskasia, eta ondorio zuzen moduan, euskarazko hedabideen aldetik zabalkunde falta. Horri, zenbait iragarleren iritzi ezkorra gehitu dakioke: euskara traba bezala eta komunikaziorako zailtasun bezala sumatzea eta, beraz, errentagarritasunaren aurka doana.

Iritzi honi buelta ematea zaila dela ematen du eta datuek beltzak badirudite ere, datuekin saiatuko naiz argi apur bat ematen.



JASONE MENDIZABAL
Topagunea Euskara Elkarteen Federazioko kudeatzailea

> *"Herriko aldizkariek herrietako berriak jorratzen dituzte, baina nazio mailako sektorea osatzen dute"*

> *"Iragarkiak zenbat eskutara heltzen diren? 500.000 irakurle batzen dituzte Topaguneko aldizkariek"*

Euskarazko hedabide nazionalen zabalkundea poliki bada ere, handituz doa etengabe. Puntuz puntu, ETB1 audientzia kuotak irabazten doa eta *Larrun*-eko 55. zenbakian kaleratutako datuen arabera, telebista gehien ikusten den unean, 250.000 euskaldunetatik, 50.000ra hurbiltzen da euskarazko katea aukeratzen dutenen kopurua. *Euskaldunon Egunkaria*-ren irakurle kopura ere 50.000 irakurleren bueltan dabil. Bestalde, astekari historikoez gain, hor ditugu *Zabalik*, *Putz*, *Ostiela*... Euskarri berriek aukera berriak sortzen dituzte publizitatea egiteko.

Publizitatea euskaraz egiteko argudioen artean honakoak aipa daitezke: prestigioa ematen dio enpresari, kanpoko enpresekin lehiatzerako orduan, mezu hunkigarriagoak, beste hizkuntzek eskaini ezin duten balio erantsia ematen dutenak eskaintzen ditu eta euskarazko hedabideen publikoa fidela da.

Baina, erdal hedabideekin lehiatzea zaila daukagula ezin da ukatu, hedapena eta zabalkundea baita betiko eragozpena. Eta testuinguru honetan, tokiko aldizkariak non koka ditzakegu? Asko ugaldu dira azken hamarkadan herri aldizkariak eta herriz herri eta eskualdez eskualde, euskaraz irakurtzeko eta publizitatea euskaraz egiteko ohitura berriak eragin dituzte.

Aldizkari hauek astekariak, hamaboskariak zein hilabetekariak dira nagusiki, *Hernaniko Kronika*-ren salbuespenaz, azken hau egunkaria baita, eta harrera ikaragarri ona lortu dute herritarren aldetik. Militantismotik harantzago heldu dira beraien zabalkundean eta merkatal etxeen konfiantza lortu dute.

Tokiko aldizkarietako iragarleak herrietako edota eskualdeko merkatal etxeak izan ohi dira nagusiki eta dagoeneko hedabide hauen publizitaterako gaitasuna frogatutzat eman daitekeelakoan nago. Urtean 2,3 milioi eurotan estimatzen dira Topaguneko bazkide diren aldizkarien publizitate bidezko sarrerak eta honek beraien aurrekontuaren erdia finantzatzeko balio die batez bestez.

Baina iragarki horiek zenbat eskutara heltzen dira? 500.000 irakurle batzen dituzte Topaguneko aldizkari bazkideek. Tokiko aldizkarien txikitasunaz ahaztu eta sektore honen garrantziaz jabetu beharra dagoela uste dut. Herriko aldizkariek, herrietako berriak jorratzen dituzte, baina nazio mailako sektorea osatzen dute eta honekin jokatuz, sinergiak bilatu eta iragarleei gurean egiteko abantailak, baita zabalkundean ere, kontatuko dizkiegu.

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA — Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

## *Lanera joateko autobusa sarriago erabiltzea irtenbidea da?*

# Gora eta Behera

### ISURI BELTZARI AURRE EGITEKO, JENDEAK EMANDAKO ERANTZUNA

Galizian *Prestige* ontziak izandako istripuaren ondoren, horrek dakarren hondamendi eta kutsadurari aurre egin nahian, jendeak emandako erantzuna. Laguntzak eta baliabideak eskasak izan arren, jendea buru-belarri lanean ari da itsasotik erregai beltza ateratzen.

### GOBERNUEN ERANTZUN KAXKARRA

Galizian gertatutako hondamendiaren ondoren, egoerari aurre egiteko Espainiako Gobernuak eta Galiziako Xuntak azaldu duten arduragabekeria eta erantzun kaxkarra.



ALAZNE INTZA
Oñatiko Laixan euskara elkarteko teknikaria

# Koplak

### *Lehengo lepotik burua...*

2002 joan da eta
hasi da hirugarrena
hasieratik antzeman leike
aurtengoak dakarrena:

Urte amaieran beltzez jantzi zen
Galizia ingurua,
ta hona ere iritsiko da
hondamendi segurua.

Politikoek urte hasieran
hartu dute lehengo martxa
nola edo hala estali behar
txapapotearen mantxa.

Gabonetako kontsumismoa
oraindik ez da bukatu
ta beherapenetan berriz gonbita:
"gastatu eta gastatu".

Asmo berriak eduki arren
urtearekin batera
gauzak ez dira asko aldatu,
lehengo moduan lanera!

Itxura baten ikusi arren
urteari zer darion
eutsi goiari! Ta ondo hasi,
guztioi Urte berri on!

ARANTZAZU LOIDI

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Juan Jose Arrieta

EUSKADIKO KUTXAKO ZUZENDARI NAGUSIA

# "Euroaren abantailak, hau da, interes tasa baxuak-eta, ilunduta geratu dira lehenengo hilabeteetan, biribiltzearen ondorioz"



Ekonomiaren gainean jardun dugu Euskadiko Kutxako zuzendari nagusiarekin, Juan Jose Arrietarekin (Soraluze, 1955). Izan ere, azken 25 urteotan ekonomiak Euskadin izan duen bilakaera aztertu du Euskadiko Kutxak. Hona, solasaldiak emandakoa.

ENEKO AZKARATE

**Azken 25 urteotan ekonomiak Euskadin izan duen bilakaera aztertu du Euskadiko Kutxak. Ekonomia asko hobetu dela da azterketa horretatik atera daitekeen ondorioetako bat.**

Nik uste dut zalantza barik esan daitekeela azken hogeita bost urteak, oro har, positiboak izan direla euskal ekonomiarendako. Aberastasuna eta enplegua sortu dira eta produkzio-ehuna berritu eta modernizatu egin da. Aldi berean, nabarmen areagotu da gizarte ongizatea, eta hori osasun zerbitzuen hobekuntzan eta biztanleriaren prestakuntzan ikusten da, bereziki.

**Eta zeintzuk izan dira hobekuntza horren arrazoi nagusiak?**

Urte hauetan, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira gure erakundeen egituran: batetik, 1980an, EAE sortu zen, eta, horren ondorioz, administrazio publiko berria eta zerga-antolakuntza autonomo berria eratu ziren; bestetik, 1986an, Europako Batasunean sartu ondoren, nazioarteko trukeak erraztu egin ziren. Aldi berean, munduko ekonomia jardueraren globalizazioa gero eta handiagoa da, eta komunikazio teknologien iraultza ere izan dugu. Horrek guztiak egoera berrira etengabe egokitzea eskatu du, eta, hortaz, euskal ekonomian diru asko inbertitu da, teknologia garatu edo erosi egin da, langileen prestakuntza eta trebakuntza areagotu egin dira, komunikazio eta garraio egiturak hobetu eta inguruko herrialdeekiko harremanak indartu egin dira. Ekonomi eragile guztiek hartu dute parte prozesu horretan. Izan ere, enpresariek, langileek eta sektore publikoak, nork bere alorrean, lana, enpresa lehiakorrak, ekonomia modernoagoa eta aberastasuna sortzen lagundu dute.

**Espainiako eta Europako beste herrialde batzuek baino bilakaera hobea izan du Euskadiko ekonomiak?**

Egoera aldakor eta konplexuetan, zaila da konparaketa homogeneoak eta erabatekoak egitea. Edozelan ere, ondorio orokor garbia atera dezakegu adierazle garrantzitsu bat hartzen badugu, BPG (Barne Produktu Gordina) *per capita*, esate baterako, eta gure maila Europako batez bestekoarekin alderatzen badugu. Orduan esan daiteke 1999an EAEk Europako batez besteko maila lortu zuela, Madril, Nafarroa eta Balear Uharteekin batera, eta Espainiako gainerako eskualde guztien aurretik. Datu horiei denboran barrena begiratzen badiegu, aurrerapena orokorra izan dela ikusiko dugu. Dena dela, EAEk beste eskualde askok baino hazkuntza-erritmo biziagoa izan du, eta horri esker aurreratuenen artean kokatu da azken urteotan, industrian krisi handia jasan behar izan dugun arren.

**Azterketa horren arabera, Euskadiko Barne Produktu Gordina bikoiztu egin da 1980a ezkero. Populazioa, ostera, ordukoa eta gaur egungoa ia berbera da. Horrek zer esan nahi du?**

Aberastasuna areagotu arren, biztanleria ez ugaldu izanak azaltzen du, neurri baten, lehen aipatu dudan gizarte ongizatearen hobekuntza. Baliabide gehiago daude biztanle bakoitzeko; hortaz, ondo banatzen badira eta helburu interesgarriak lortzeko erabiltzen badira, denok irten gara irabazten. Hala eta guztiz ere, itxuraz pozgarria den emaitza horrek hain positiboak ez diren alderdiak ere baditu. Ildo horretan, bitxia da juxtu gehien daukagunean hazkuntza demografikoaren tasak behera egitea. Horrek argi eta garbi erakusten du gure gizarteak aldaketa handiei egin behar izan diela aurre azken urteotan, baina ez dago dudarik biztanleriaren geldialdiak eta murrizketak gizarte dinamismoa galtzea eta gizartearen erreferentzia balioak aldatzea ekartzen dituztela, eta horretaz hausnarketa egin beharko genuke.

**Beste ondorioetako bat da hirugarren sektoreak, hau da, zerbitzuenak, aurre hartu diola bigarrenari, industriari. Horrek zer erakusten digu?**

Euskal Herriko produkzio egiturak gero eta pisu handiagoa hartu du hirugarren sektorean, industriak eta lehen sektoreak behera egin duten bitartean. Bi sektore horiek pisua galdu izanak ez du esan nahi ez direnik hazi, euren hazkuntza-erritmoa hirugarren sektorearena baino txikiagoa izan dela baizik. Eta, gainera, beste faktore bat ere badago; batez ere industrian nagusitzen ari den jardueraren antolamendu berriaren funtsak hauek dira: enpresek oinarrizko prozesuak barruan gauzatu eta beste jarduera batzuk, neurri handi baten, azpikontratatu egiten dituztela. Jarduera horietako asko, esate baterako, garraioa, zerbitzu informatikoak, publizitatea, eta abar, zerbitzuen barruan daude. Horregatik, hirugarren sektorea areagotu egin da, baina industria jarduera ez da murriztu. Ekonomia egitura aurreratuago eta egonkorragoetara ari gara hurreratzen, beste barik.

**Hortaz, gaur egun, industriak gure ekonomian duen garrantzia zerbitzuek dutena baino txikiagoa da?**

Sortzen duten balio erantsiaren arabera neurtzen badugu, zerbitzu jarduerak garrantzitsuagoak dira gure ekonomian industria jarduerak baino, eta eskaintzen dituzten lanpostu kopuruen arabera neurtzen badugu, hirugarren sektorearen garrantzia are handiagoa da industriare-

EKONOMIAREN EGOERA ONA

**"Enpresariek, langileek eta sektore publikoak, nork bere alorrean, lana, enpresa lehiakorrak, ekonomia modernoagoa eta aberastasuna sortzen lagundu dute"**

HAZKUNTZA-ERRITMO BIZIA

**"EAEk beste eskualde askok baino hazkuntza-erritmo biziagoa izan du, eta aurreratuenen artean kokatu da azken urteotan, industrian krisi aipagarria jasan behar izan duen arren"**

DEMOGRAFIAK, BEHERA

**"Gehien daukagunean, hazkuntza demografikoaren tasak behera egin du. Horrek gizarte dinamismoa galtzea ekartzen du, eta horretaz hausnarketa egin beharko genuke"**

HIRUGARREN SEKTOREA

**"Enpresendako zerbitzuen sektorea da gehien hazi dena azken mende laurdenean, eta argi dago hazkuntza hori industriaren eskakizunen ondorioa izan dela, neurri handi baten"**



GOIENKARIA

kiko. Hori guztiz normala da, kontuan hartzen badugu ia jarduera publiko guztia hirugarren sektorean dagoela eta azken hogei urte hauetako bultzadarik handiena izan duten sektoreen artean hezkuntza, osasuna, gizarte babesa, eta abar daudela. Bestalde, industriak funtsezko garrantzia du euskal ekonomian, eta ez bakarrik ia %40ko pisu zuzena duelako, baita salmentarako zerbitzu sektoreetan sortzen duen jardueragatik ere. Hain zuzen, enpresendako zerbitzuen sektorea hazi da gehien azken mende laurdenean, eta argi dago hazkuntza hori industriaren eskakizunen ondorioa izan dela, neurri handi baten.

**Lehen sektoreak ere behera egin du hogeita bost urteotan. Horrek izan du eraginik gure ekonomian?**

Lehen sektorearen pisua murriztu egin da azken hogeita bost urteotan, eta beherakada nabarmenagoa izan da enpleguari dagokionez. XXI. mendearen hasieran, 1975ean zituen langile erdiak besterik ez du lehen sektoreak, bai nekazaritzan, bai arrantzan. Gure inguruko herrialdeetan bilakaera berbera izan dute, eta, Europaren barruan gaudenez, neurri handi baten, Europan nekazaritza eta arrantza alorretan nagusitu den politika komunaren ondorioa dugu. Sektore horrek, gaur egun, orain dela hogei urte baino hedadura txikiagoa duen arren, orain, emankorrago da eta aberastasun handiagoa sortzen du, eutsi egin dio-eta produkzio bolumenari.

**Irailaren 11ko erasoaren ondorioz ekonomiaren hazkuntza geratu egin dela diote adituek. Horrela da?**

Egia da 2000n, munduko ekonomia orokorrean hartuta, azken urteotako hazkuntza handiena lortu zela. 2001etik aurrera, ordea, munduko ekonomiarik garrantzitsuenak, Ameriketako Estatu Batuetatik hasita, hazkuntza motelagoko boladan sartu ziren. Irailaren 11 baino lehen ere ari zen hori gertatzen, eta, neurri handi baten, teknologia berrien sektorearen beherakadan izan zuen sorrera, sektore horrek itxaropen handiegiak sortu zituen-eta. Ameriketako Estatu Batuetako ekonomiaren hazkuntza-erritmoaren susperraldia finantza merkatuen portaera kaskarrak oztopatu du. Europako ekonomia garrantzitsuena, hau da, Alemaniakoa, oso hazkuntza txikiko bolada ari da bizi izaten, eta hori Alemaniaren kideengana heltzen denez, oso hazkuntza motela eragin du Europa osoan. Japoniak ere ez du lortu erabat suspertzea, eta munduko hazkuntza asko moteldu da 2001ean. Gauza bera esan daiteke 2002az ere.

**Hori igarri du Euskadiko Kutxak?**

Banku sektorean, bai gurean, bai gainerako kutxa eta bankuetan, bi gertaera berezi izan dira azken urteotan. Lehenengoa interes tasen eragina izan da. Izan ere, interes tasak minimo historikoetan kokatu dira azken urtean, eta horrek ekarri du, burtsa merkatuetako itxaropen ezarekin batera, aurreztaileek aurrezteko interesik ez izatea; eta bigarrena lehenengoari oso lotuta dago: etxebizitzak erosteko hipoteka finantzaketaren eskaria handitu egin da, produktu dinamiko eta erakargarrienetakoa bihurtzeraino. Horren ondorioz, lehia-tentsioa murriztu egin da aurrezkia erakartzeko arloan eta handitu hipoteka maileguetan.

**Zelako urtea izan da iazkoa Euskadiko Kutxarendako?**

Interes tasa baxuek eragin kaltegarria izaten dute kutxetan, baita Euskadiko Kutxan ere, likidezia handia dute-eta, familien aurrezkien ondorioz. Hori gorabehera, ohiko negozioaren errentagarritasuna %5 inguru haziko da. Burtsaren koiuntura txarra izan da Estatuko burtsetan eta nazioartekoetan, eta horrek ere ez digu lagundu, beste urte batzuetan moduan, ohiko errendimenduak euskarritzen edo osatzen. Hala, 2002ko emaitza orokorrak, oso positiboak diren arren, aurreko urtekoak baino zertxobait eskasagoak dira. Baina egoera horrek bere alde ona du Kooperatiba Taldearendako: finantza kostu txikiek finantza karga arindu dute eta inbertsio proiektu berriak garatu dira.



GOIENKARIA

# “Ekonomia jardueraren susperraldia atzeratzen ari da”

**Euroa indarrean sartu izana igarri dugu kontsumitzaileok…**

2002ko hasieran euroa Europa osorako moneta komun gisa azaldu izana gertaera aipagarria dugu, hainbat urte zeramatzan arren moneta *teoriko* izaten. Euroaren abantailak (interes tasa baxuak, transakzio kostu txikiagoak, prezio gardenagoak, etab.) ilunduta geratu dira lehenengo hilabeteetan, biribiltzearen ondorioz prezioek izandako gorakadengatik, orain dela gutxi Europako Banku Zentralak onartu duen moduan. Hori arazo iragankorra da, ordea, eta hemendik aurrera prezioen gorakadak ezin izango zaizkio, inolaz ere, euroari leporatu.

**Euskadiko eta munduko ekonomiari dagokionez, zein aurreikuspen egin ditu Euskadiko Kutxak datorren urterako?**

2003rako itxaropenak, orain, urtea hasi berria denean, baikorrak dira, baina ez duela hilabete batzuk uste genuen bezain baikorrak. Munduko ekonomia jarduera ustez suspertu egingo den arren, epeak atzeratzen ari dira. 2002ko bigarren seihilekorako susperraldia espero zen, baina ez da horrelakorik gertatu; orain, susperraldia 2003an heltzea espero da, baina baikorrenek bakarrik uste dute berehala gertatuko dela.

## Podiuma

# Jone Muxika | EUSKADIKO TXAPELDUNA ZIKLOKROSEAN |

**Orain dela urte bi ekin zion Jone Muxika elgetarrak ziklokroseko probetan parte hartzeari. Eta gauzak oso ondo joan zaizkio. Aurreko asteaz gero, Euskadiko ziklokroseko txapelduna dugu. Espainiako Txapelketatik bueltan izan gara Jonerekin.**

**Espainiako Txapelketan lehen hamarren artean amaitzea zen helburua. Zortzigarrena eginda, iazko postua hobetu duzu.**

Zortzigarrena egitea ez da emaitza txarra izan. Lasterketan 23 emakumek hartu genuen parte. Aurrenekoen artean egotea pozik egoteko modukoa den arren, ez nago oso gustura egin nuen lasterketarekin. Dena eman izan ez banu bezala amaitu nuen lasterketa. Ibilbidera ere ez nintzen ondo moldatu; izan ere, nahiko laua zen, eta nik, aldiz, gusturago jarduten dut ibilbide aldapatsuetan.

**Txapelketako maila ere ona izango zen.**

Asturiarrek oso ondo jardun zuten, eta ezin izan nuen postu hoberik egin. Han egotea esperientzia polita izan da. Euskaldunok egin dugun txapelketa ere ezin dugu ahaztu. Nekane Lasaren bigarren postua eta mutilek emandako maila pozik egoteko modukoak dira.

**Gipuzkoako Txapelketan bigarren, Euskadikoan lehenengo eta Espainiakoan zortzigarren. Denboraldi bikaina egiten diharduzu.**

Denboraldi hasieran ez nuen uste emaitza hauek lortuko nituenik. Ziklokrosean nabilen bigarren denboraldia da. Euskadiko Txapelketa irabaztea izugarrizkoa izan da. Muxikako eta Ispasterko lasterketak geratzen dira. Aurrenekoen artean amaitu eta, bide batez, Espainiako Txapelketatik ekarri dudan gorputzaldi txar honekin amaitu gura nuke.

**Euskadiko Txapelketan ordura arteko lasterketa guztiak irabazi zituen Nekane Lasa atzean utzi zenuen.**

Berara gogo handiarekin joan nintzen. Aste bukaeran bertan, ibilbidea ikusten izan nintzen. Hori abantaila izan zen niretako eta Gogo handiarekin irten nintzen. Aipatu gura nuke anaiak eta lagunek asko lagundu nindutela: etengabe jardun zuten denborak eman eta animatzen. Bizikleta aldaketak egiteko ere haien laguntza izan nuen. Haiengatik izan ez balitz, seguruenik ez nukeen irabaziko.

**Pedalei, ordea, norberak eragin behar die. Dena eman zenuen.**

Egia da gorputzaldi onean nengoela. Nekane Lasak ez zuen egun onik izan, eta ni horretaz baliatu nintzen; kanbioetan arazoak izan zituen. Arazoak izan zituenean ateratako aldea handitu egin nuen. Helmugara iritsi arte ez nuen pentsatzen irabaziko nuenik eta azken metroetan jabetu nintzen txapelduna nintzela. Helmugara iritsi nintzenean, ez nuen sinesten. Anaiari, lagunei eta Alfa-Deco taldekoei eskerrak eman gura dizkiet, emandako laguntzagatik.

OXEL EROSTARBE


O.E.
Oraingo aste bukaeran, Ispasterko proban izango da elgetarra.

> "Espainiako Txapelketan zortzigarren egitea pozik egoteko modukoa da. Hala ere, dena eman izan ez banu bezala amaitu nuen"

> "Ziklokrosean nabilen bigarren denboraldia da aurtengoa. Euskadiko Txapelketa irabaztea izugarrizkoa izan da"

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Aretxabaleta-Bergara 1-2 / Mundarro-Aloña Mendi: 2-2 / Soraluze-Mondra: 1-4

### ASTEKO JOKALARIRIK ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Jon Lasagabaster | (Mondra) | 3 puntu |
| **2.** | Josu Zubikarai | (Bergara) | 2 puntu |
| **3.** | Unai Biain | (Aloña) | 1 puntu |


1
**Jon Lasagabaster**
Mondra


2
**Josu Zubikarai**
Bergara


3
**Unai Biain**
Aloña

**Jon Lasagabaster**
Defentsan bikain eta, gainera, gol bi. Ikusgarria!

**Josu Zubikarai**
Teknika mailan Bergarak duen jokalari onena da.

**Unai Biain**
Azken txanpan, gola eta berdinketa Aloñak.

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 9 puntu |
| **2.** | Jon Altzola | (Bergara) | 6 puntu |
| **3.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 6 puntu |
| **4.** | Josu Zubikarai | (Aloña) | 5 puntu |
| **5.** | Iban Unanue | (Aloña) | 5 puntu |


1
**Gorka San Vicente**
Bergara


2
**Jon Altzola**
Bergara


3
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra


4
**Josu Zubikarai**
Bergara


5
**Iban Unanue**
Aloña

Goienkaria

## Kirolaburrak

### PILOTA/ARRASATE

Binakako Txapelketako partiduak jokatuko dira, domekan, Arrasaten. Aurrez aurre izango dira iazko txapeldunak, Xala eta Lasa III.a, eta txapeldunordeak, Olaizola I.a eta Ruiz. Partidua erabakigarria da lau pilotariendako, txapelketan aurrera egiteko puntu garrantzitsua dago-eta jokoan. Lehenago, bigarren mailako Binakako Txapelketako partidua jokatuko da: Beloki II.ak eta Pinedok Saralegiren eta Beginoren aurka jokatuko dute. Partiduak Arrasateko Uarkape pilotalekuan jokatuko dira, arratsaldeko bostetan hasita.



### 'SNOWBOARD'-A/BERGARA

Aitor Delarriberete bergararrak aste bukaeran Austrian jokatuko den Munduko Txapelketan hartuko du parte. Aitor astelehenean abiatu zen Austria aldera, Espainiako Selekzioko gainerako kideekin batera. Espainiako Txapelketan bosgarren izan zen bergararra. Argazkia iaz Baqueira-Bereteko X. Ballantine's Zirkuitua irabazi zuenekoa da. Podiumeko lehenengo postuan ikusten dugu Aitor Delarriberete.



### MASTERRAK/DEBAGOIENA

Aste bukaeran, Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatutako zirkuitutetako masterrak jokatuko dira. Tenis masterreko finalak bihar jokatuko dira (zapatua), eguerdiko hamabietan, Bergarako Labegaraietako kiroldegian. Finalean Caballero eta Oñederra izango dira aurrez aurre.

Frontenis masterreko finala, berriz, domekan jokatuko da, 11:30ean. Aretxabaletako kiroldegian izango da finala, eta Hurtadok eta Izquierdok Sánchezen eta Garcíaren aurka jokatuko dute.

### XAKEA/DERBIA

Euskal B Ligako goiko postuetan jarraitzen du Aretxabaletako Arlutz Xake Taldeak. Oraingo aste bukaeran, derbia jokatuko du, Arrasateko San Andres Xake Taldearen aurka. Derbia bihar izango da (zapatua), arratsaldeko lauretan, Arlutz Xake Taldearen egoitzan. Aretxabaletarrak Euskal B Ligako aurreneko postuetan daude. Eta, aurrenekoen artean jarraitzeko, ezinbestekoa dute arrasatearrei irabaztea.

# Zezeaga eta Elkoro, Binakako Txapelketa hastear

Aurreko astean hasi zen aurtengo Binakako Txapelketa. Euskal Herriko pilotari onenen artean debagoiendar bi izango dira: Joxe Mari Zezeaga eta Aitor Elkoro. Aste bukaeran ekingo diote biek txapelketari /OXEL EROSTARBE

## JOSE MARI ZEZEAGA

UBERA

**Palmaresa**

- Binakako txapelduna, ohiko enpresen txapelketan, 1994an.
- Binakako txapeldunordea, 1992an, 1995ean, 1996an eta 1999an.



GOIENKARIA

Uberarrak eta Titinek finalaurrekoetarako sailkatzea dute helburu.

**Titin III.arekin batera txapelketako bikote indartsuenetakoa osatuko du uberarrak. Lesio bat delaeta lehenengo partidua ez jokatu arren, bihar Mungian izango da.**

**Domekan ezin izan zenuen jokatu. Lesio larria daukazu?**

Kailoa gaizki neukan, itxura txarrarekin. Ondo jartzeko, garbitu beharra izaten da. Atseden hartzea izan da onena, jokatuz gero, eskuak okerrera egiteko aukera zegoen-eta.

**Bihar, Mungian, Berasaluzeren eta Belokiren aurka jokatzeko moduan egongo zara?**

Astean zenbait proba egin ditut, eta eskua hobeto daukat. Biharko partidua garrantzitsua da guretako. Nire betiko mailan egotea espero dut.

**Aurten, Titin III.a duzu bikotekide. Txapelketa irabazteko faboritoen artean zaudete?**

Gure helburua finalaurreko ligaxkarako sailkatzea da, eta hori ere nahiko zaila izango da. Dagoeneko puntu bat galdu dugu, eta gainerako hiru partiduak irabazi beharko ditugu sailkatzeko.

**Porrotarekin hasteak hurrengo partiduak irabaztera behartzen zaituzte?**

Lehen partidua galtzeaz gainera, tanteoa ere ez da izan guk nahi genukeen besteko ona. Ondorengo hiru partiduetan dena eman beharko dugu.

**Zuetaz gain, zein beste bikote ikusten duzu indartsuen?**

Adibidez, Xala eta Lasa ondo hasi dira, eta Olaizola anaia bien bikoteak ere indartsu daude. Txapelketa parekatuta dago.

## AITOR ELKORO

ELGETA

**Palmaresa**

- Binakako txapelduna, 1996an eta 1999an.
- Binakako txapeldunordea, 1994an.
- Banakako txapeldunordea, 1997an.



GOIENKARIA

Elgetarrak eta Mikel Goñik min handia egin dezakete txapelketan zehar.

**Mikel Goñi izango du bikotekide elgetarrak. Zuria eta beltza direla esan daiteke, inork ez daki zer egingo duten. Mikel sasoian badago, kontuan hartzeko bikotea da.**

**Gaur jokatuko duzue lehen partidua, Esainen eta Armendarizen aurka, Amurrion. Zelan heldu zarete lehen partidu honetara?**

Joko aldetik ondo nabilela esango nuke. Eskuetatik ere ondo iritsi naiz txapelketara. Mikelek, berriz, arazoak izan ditu ezkerreko eskuan; eskuak zelan erantzuten dion ikusi behar... Partidua gure alde ipintzeko, Mikelek ezkerreko eskuan duen indarra erabakigarria izan daiteke.

**Zelan ikusten duzu Esainen eta Armendarizen aurkako partidua?**

Zaila izango da. Armendariz maila handiko pilotaria da, eta ziur nago bere maila emango duela. Esain ere arriskutsua da sakean eta errestoan. Serio jokatu beharko dugu irabazteko.

**Zer moduz ikusten duzu Goñi?**

Inork ez daki Mikelek zer egin dezakeen. Iaz elkarrekin jokatu genituen partiduetan emaitza txarrak izan genituen. Ea aurten alderantziz gertatzen den. Hasieran, beti egoten da ilusioa; lehenengo bi partiduak irabaztea garrantzitsua izango litzateke.

**Zein bikote ikusten dituzu indartsuen?**

Iazko txapeldunak –Xala eta Lasa– eta txapeldunordeak –Aimar eta Ruiz– aurkari gogorrak izango dira. Titin ere ezin dugu ahaztu; izan ere, Zezeagak eta Titinek bikote indartsua osatzen dute.



CG CONSULTORIO GINECOLOGICO
Talde osoa emakumearen eskura

Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia ........ Antonio Estomba
Menopausia ........ Fernando Cristobal
Endoskopia ginekologikoa ........ Alfredo Otalora
Laguntza bidezko ugalketa ........ Jose M. Gómez
Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak ........ Domingo Murgiondo
Obstetrizia ........ Miguel Gabarain
Psikosexualitatea ........ Maria José Ruiz
Nerabezaroko ginekologia ........ Fatima Azkue
Hezur dentsitometria ........ J. Rodríguez

**Arrasateko kontsultategia:**
**Zerkaosteta 17, behea**
**Tel.: 943 79 20 18**

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



## Añai erretegia

**Nardeaga 32 / ARAMAIO**
**945 44 51 01**

**Eskaintza**
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

**Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

**Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik**






## Baster-Alde

**Galartza auzoa / ARETXABALETA**
**943 79 24 58**

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Bikoitz jatetxea

**Garibai auzoa 17 / OÑATI**
**943 78 24 83**

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Gosariak
- Plater konbinatuak
- Razioak
- Menu bereziak zapatu eguerdietan

**Domeketan eta jai egunetan itxita**
**Zapatuetan:** 11:00-16:00 eta 20:00etatik itxi arte



## Leku berri jatetxea

**Irimo barrena / ANTZUOLA**
**943 76 60 94**

**Eskeintza**
- Menua eta Karta
- Bataioak eta jaunartzeak
- Kintadak

**Berezitasunak**
- Bakailaua, kokotxa eta almejekin
- Bildotsa erreta • Txuletak
- Etxeko postreak

- **Astelehen arratsaldetan itxita**



## Taberna-Berri jatetxea

**Durana 24-26 / ARETXABALETA**
**943 79 20 67 / 943 79 49 41**

**Eskaintza**
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

**Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



## Torrekua jatetxea

**Ibargarai 37 / BERGARA**
**943 76 50 99**

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak




## Unzueta jatetxea

**Zabola auzoa / ARAMAIO**
**945 44 50 95**

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: Okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

**Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
**943 78 35 45**

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandetan itxita**

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 17a

Kultura eta aisialdia

Urtarrilaren 17tik 24ra


## BILLY PETERSEN

## Telebistako izar baten iragan euskalduna

**C.S.I. telesail arrakastatsuko izarra da William Petersen aktorea. Sari prestigiodunak irabazi, kritikoen goraipamenak entzun eta publikoaren miresmena jasotzen ditu. Baina gutxik dakite Petersenek Oñatin urtebete pasatu zuela 1974an, euskal kulturarekin maiteminduta. Eta lotura horri eutsi egiten dio aktoreak, eta hala erakutsi digu GOIENKARIAri eskaini dion elkarrizketa honetan. Ospea eta dirua izan arren, gizon umoretsu eta jatorra izaten jarraitzen duela erakutsi digu.**

**Zein oroitzapen gordetzen dituzu Oñatin izan zinen garaitik?**

Dauzkadan oroitzapenak oso-oso biziak dira. Oñati oso leku esanguratsua da niretako, sentimenduz betetakoa. Gure alaba Maite Arrasaten jaio zen, 1975ean. Oñatin urtebetez bizi izan ginen… Orain dela hiru urte han izan ginen berriro Maite eta biok, eta berriro joateko asmoa dugu.

Niretako, Oñati da Europarekin maitemindu nintzen lekua eta aktore bezala nire bokazioa piztu zen lekua. Oñatirekin amodio istorio bat dudala esan daiteke: niretako, noizbehinka baino ikusi ezin dudan maitalea bezala da Oñati.

**Euskal errorik ez izan arren, euskal kulturarekiko zaletasun handia duzu. Zelan piztu zitzaizun interes hori?**

Ni izatez Chicagokoa naiz, baina Boise-n (Idahoko estatuan) bizi izan nintzen, eta hango ikastetxera joan nintzen. Boisen euskaldun jatorriko familia asko bizi dira, eta nire ikaskide eta lagun asko euskaldun sustraidunak ziren. Handik piztu zitzaidan interesa.

Gero, 1974an, ikastetxeko zuzendariek euskal kultura gertutik ezagutzeko programa antolatu zuten, eta nire lagun askok izena eman zuten. Orduan, neuk ere Oñatira joatea erabaki nuen. /14-15




**Billy Petersen, 'Grissom'** T5 kateko 'C.S.I.' telesaileko izarra

AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIA: C.S.I.

**PERTSONAIAK/ T5 KATEKO 'C.S.I.' SAIOAN 'GIL GRISSOM'-ENA EGITEN DUEN AKTOREAK LOTURA ESTUA DU DEBAGOIENAREKIN**

# Billy Petersen ('C.S.I.') telebista izarra

OÑATIN DESKUBRITU ZUEN BILLY PETERSENEK AKTORE IZAN GURA ZUELA. GAUR EGUN TELEBISTAKO IZAR FAMATUA IZAN ARREN, EZ DITU EUSKAL

LEIRE KORTABARRIA

**William Petersen (edo Billy, berari deitzea eskatzen duen moduan) aktore ezaguna da gaur egun, baina erdi klaseko familia baten du jatorria, eta, ezagutzen dutenek esaten dutenez, "lehen bezain xumea eta jende artekoa izaten jarraitzen du".**

Urtarrilaren 13an, Debagoienean gaueko ordu txikiak zirenean, Ameriketako Estatu Batuetan, Pasadenan (Kalifornia), *C.S.I.* telebista saioko protagonista William Petersen aktoreak People's Choice saria –hau da, jendearen aukera– jaso zuen. Telesail horren arrakastaren beste eredu bat da. Geurean ere oso arrakastatsua da *C.S.I.* (T5 kateak emititzen du astelehen gauero). Telesailak poliziarekin batera misterioak argitzen lan egiten duten auzitegiko mediku batzuen gorabeherak kontatzen ditu, eta haien buru den *Gil Grissom* doktorearen papera egiten du.

Baina aktore horren bizitza ez da beti *glamour*-ez inguratuta egon. 1974an, nora, eta Oñatira etorri zen Petersen, euskal kulturarekin maiteminduta. Garai hura atseginez gogoratzen du Hollywoodeko izarrak.



TELECINCO

'C.S.I.' telesailak ia lau milioi ikusletik gora izan zituen irailaren 30eko emanaldian.

> *Illinois estatukoa jatorriz, Boisera joan zen, eta euskal sustraiko jendea ezagutu zuen han*

> *1974an, Oñatira etorri zen, eta hemen konturatu zen aktore izan gura zuela*

> *'C.S.I.' saioari esker egin da ezagun, baina bere benetako pasioa antzerkia izan da betidanik*

**LEHEN URTEAK**

William Louis Petersen AEBetako Illinois estatuan jaio zen, 1953ko otsailaren 21ean. Gaur egun izar diren hainbatendako bezala, Petersenendako, hasierak ez ziren errazak izan. Sei anai-arrebaren artean gazteena zen, eta gurasoek altzari denda bat zuten. 15 urte zituela, Boise hirira joan zen bizi izatera, eta Bishop Kelly ikastetxera joan zen. Han euskal errodun jendea ezagutu zuen Billyk. 1974an, Oñatira, euskal kultura hobeto ezagutzera, etorri ziren hainbat gazte amerikar, eta Billyk ere etortzea erabaki zuen. Oñatin bizi izan zen urtebetez. Oñatin bere lehen emaztearekin ezkondu zen, eta 1975ean, haien alaba Maite jaio zen.

**ANTZERKITIK 'C.S.I.' TELESAILERA**

AEBetan bueltan, antzerkian buru-belarri hasi zen lanean Petersen, eta Remains izeneko antzerki taldea sortu zuen lagun batzuekin. Bere talentuak Hollywood ere erakarri zuen, eta *To live and die in L.A.* filma izan zen Petersenen lehenengoa. Hala ere, kritikoen esanetan, "aktore izan gura zuen, ez izar; hori dela eta, komertzialtasunari begira baino gehiago, artistikotasunari begira aukeratzen zituen proiektuak".

*C.S.I.* telesailean agertzearekin batera egin zen Petersen publiko handiarendako ezagun. AEBetan 2000n, urrian, estreinatu zen *C.S.I.* telesaila. Estatuan, baita Euskal Herrian ere, arrakasta handia du saio horrek. T5 katearen datuen arabera, batez beste hiru bat milioi ikusle ditu astero, eta irailaren 30ean, lau milioi eta erdi izan zituen.



## JESUS ALTZELAI
MAITEREN AITABITXIA

*"Boiseko gure jatetxera sarritan etortzen zen Billy"*

**Zerk ekarri zuen Billy Oñatira?**

Boisen, High School-en, euskaldun asko ezagutu, eta euskal kulturarekiko miresmena piztu zitzaion. 1974an, irailean, etorri zen. Ordurako, aktore izateko gaitasuna zuela erakutsi zuen: taldeka abesten genuen, eta hark, abesteaz gainera, abestia *antzeztu* egiten zuen.

**Haren alaba Maiteren aitabitxia zara...**

Bai, hala da. Oñatin zegoela, Boisen utzi zuen neskalaguna etorri egin zen. Haurdun zegoen, eta alaba hemen jaio zen, 1975ean, eta niri eskatu zidan aitabitxi izatea.

**Boisen 20 urte egin zenituen, zure jatetxea, Oñati, zuzentzen. Ikusten zenuten elkar?**

Bai, sarri etortzen zen gure jatetxera. Michelle Pfeiffer, Sally Field eta halako aktoreak harekin etortzen ziren batzuetan. Orain ere euskal kultura maitatzen jarraitzen du Billyk.

## JAIME JONES
GAZTAROKO LAGUNA

*"Jendearengan poza eta alaitasuna sortzea du gustuko, eta lortu egiten du"*

**Zelan ezagutu zenuen Billy Petersen?**

Boisen bizi ginen biok, baina ikastetxe desberdinetan genbiltzan, eta nik Oñatin ezagutu nuen. Oso oroitzapen onak ditut. Mutil bikaina zen, oso xumea eta zintzoa, eta erantzukizun handikoa. Oso alaia zen eta jende artean ibiltzea zuen gustuko. Goi tentsioko kable batekin konpara dezakezu Billy.

**Bere lehenengo antzerki irakaslearen lagun handia zen, ezta?**

Bai. John Woodward zen. Iaz, udaberrian, hil zen, eta Billyk pena handia hartu zuen. Gogoratzen naiz hileta elizkizunean alarguna kontsolatzen izan zela.

**Zein da, zure ustez, haren ezaugarri nabarmenena?**

Nik beti esaten dut aktore den bezala, abade ere izan zitekeela Billy. Izan ere, bera oso pertsona baikorra da; jendearengan poza eta alaitasuna sortzea du gustuko, eta lortzen du.



## MICHAEL BRUNELLE
GAZTAROKO LAGUNA

*"Antzezten bukatu ondoren, betiko lagunekin joaten da"*

**Zelakoa zen Billy zuen ikasle denboran?**

Oso pertsona argia zen. Kiroletan nabarmentzen zen: kirolari nekaezin eta gogotsua zen.

**Oñatin ere harekin ibiltzen zinen?**

Hantxe hasi genuen elkar hobeto ezagutzen. Oso lagunartekoa zen. Han piztu zitzaion antzerkiarekiko interesa. Antzezterakoan, bere pasio eta argitasuna azaleratzen ziren, eta guztiok txunditzen gintuen.

**Famatu denetik, aldatu dela uste duzu?**

Ez. Chicagokoa da Billy, eta Chicago langileen hiria da. Hura harro dago bere hiriaz. Antzeztea lanbide bezala ikusten du, eta gogoz egiten du. Baina bukatzen duenean, gusturago joango da betiko lagunekin garagardo pare bat hartzera eta telebista ikustera, jatetxe dotoreetara Hollywoodeko jendearekin joan baino. Bion lagunen eta senideen bidez eutsi diogu adiskidetasunari urte hauetan guztietan.

# Oñatin bizi izan zen

HERRIAN BIZI IZANDAKO MOMENTUAK AHAZTU, ETA HONA ITZULI GURA DU

**WILLIAM PETERSEN** / AKTOREA

## *"Amodio istorioa dut Oñatirekin"*

(13. orrialdetik dator).

**Zure alaba Maite hemen jaio zen arren, duela hiru urtekoa izan zen haren lehen bisitaldia, ezta?**

Bai, hala da. Oso egonaldi berezia izan zen Maiterendako ere. Jaio zen ospitalera eraman nuen, baita Arantzazura, Oñatiko San Lorentzo auzora… ere. Hara, Oñatirekin sentimenduz betetako lotura du: hor dago, haren izenean, haren iraganean… Eta niretako ere gauza bera da. Biok gura dugu berriro hara joan, eta espero dugu urte pare bat barru-edo joan ahal izatea. Bilbo, Iruñea, Gernika… erakutsi gura dizkiot.

**Orduan, jende guztiak ezagutuko zaitu, *C.S.I.* dela-eta…**

Bai; aurrekoan, oso erosoa izan zen, inork ez ninduelako ezagutzen. (Barrezka).

**Oñatin konturatu zinen aktore izan gura zenuela?**

Bai. John Woodward izeneko irakasle bikain bat etorri zen gurekin. Antzerki klasikoa maite zuen, eta haren eskutik piztu zitzaidan neuri ere interesa. Oñatin izatea esperientzia mistiko antzekoa izan zen. Amets handiak amesteko lekua zen. Antzerkia zein miragarria zen konturatu nintzen han. San Lorentzon antzerki lanak egiten genituen. Esate baterako, *Hamlet* antzeztu genuen.



Petersen-ek Gil Grissom-ena egiten du.

> *"Oñatin izatea esperientzia mistiko antzekoa izan zen: han aurkitu nuen nire bokazioa"*

**Oñati oso aldatua ikusi zenuen orain dela hiru urte?**

Zeharo aldatuta: eraikin berri ugari, errepideak… Desberdin dago oso. Lehen aldiz han izan nintzenean, guztiz harritzen gintuen mendietan artaldeak-eta ikusteak. Gerora, *El señor de los anillos* filma egin zutenean, Oñatirekin asko akordatu nintzen, *hobbit*-en *erdi lurra*-ren itxura zuelako. Beste aldaketa batzuk ere ikusi ditut: esate baterako, gu izan ginenean, Franco agintean zegoen, eta euskararik ez zen entzuten. Gero, berpiztuta ikusi nuen. Sinesgaitza zen niretako.

**Gaur egun, oso gizon lanpetua zara. *C.S.I.* telesailaz gain, beste proiekturik baduzu?**

*C.S.I.* grabatzen hamalau ordu ematen ditugu, astean zazpi egunez. Baina beste gauza batzuk ere egin gura ditut. Esate baterako, *western* bat egiteko asmoa dut, eta Chicagon antzerkian lan egingo dut. Remains nire betiko antzerki konpainiarekin egingo dut lan berriro ere. Oso gustuko dut antzerkian lan egitea, bereziki, Chicagon. Gurasoak ere han ditut, eta ahal dudanetan joaten naiz.

**Pozik zaude *C.S.I.*-n egiten duzun lanarekin?**

Telebistan ez agertzen saiatu izan naiz, telesailetako lana aspergarria izaten bukatuko zela uste nuelako. Tira, *Grissom*-ena egitea aspergarria da askotan, baina gutxienez interesgarria ere bada: misterioak daude, teknologia berriena erabiltzen dugu… Gainera, dibertigarria da zientziaren gainean zerbait ikastea; izan ere, ikasle nintzenean, ezin txarragoa nintzen zientzietan. Orain, zerbait dakidan plantak egin ditzaket. (Barrezka).



**OÑATIRA ITZULERA** **Billyk ez du Oñati ahaztu. Eskuman agertzen dena da Billy. Orain dela bi urte, alabarekin (goiko ilaran, erdian, dagoen neska) eta emaztegaiarekin (Billyren aurrean, makurtuta) etorri zen. Oñatiko lagunek esaten digutenez, "etorri eta egin zuten lehenengo gauza izan zen Urbiara joatea".**



**ORAIN DELA 27 URTE** **Artzuagak 1975ean ateratako argazki honetan, garai hartan Oñatira etorri ziren gazte amerikarrak eta haien irakasleak agertzen dira, tartean, Billy Petersen. Urte haietan piztu zen harengan aktore bokazioa. Argazkiaren aurre aldean, horretara bultzatu zuen irakaslea, John Woodward.**

'C.S.I.'-REN GAINEAN

### Telesailak bi sari irabazi ditu eta beste seirako izendatuta egon da, 2000 ezkero, AEBetan

***C.S.I.*** **telesailean gustura dabil Bill Petersen. Petersenen pertsonaia, *Gil Grissom* auzitegiko medikua, kultura eta jakintza handiko gizona da, eta asmakizunak eta esaldi bitxiak ditu gustuko. Petersenek dio: "Telesailean uneoro zerbait ikas nezakeela ikusi nuen, eta horrek lana gustura egitea dakarkit. *Grissom* eta biok desberdinak gara, baina, behin esan zidaten moduan, antzezten duzunean, zure buruak badaki antzezten zabiltzala, baina bihotzak ez; hortaz, pertsonaia bakoitzarengan aktoreak bere ezaugarriren bat uzten du".**

***C.S.I.*** **hainbat saritarako izendatuta izan da, tartean, Emmy sarietarako, telebistako *Oscarrak*. Urteko telesail onenaren TV Guide saria irabazi zuen 2001ean, eta aurten, publikoak emandako saria.**

AKTORE OSOA

### Antzerkia da haren pasioa, baina telebistan eta zineman ere lan oparoa egin du Petersenek

**Billy Petersenen benetako pasioa, antzezteari dagokionez, antzerkia da. 1979an, Remains izeneko antzerki konpainia sortu zuen, bi lagunekin batera, eta oraindik horrekin lanean jarraitzen du Billyk. Chicagon goi mailako aktoretzat izan zuten berehala Petersen, eta hainbat sari irabazi zituen. Hollywooden 1984an egin zuen lan aurrenekoz, *Vivir y morir en L.A.* filmean. *Hannibal Lecter* psikopataren atzetik ibili zen lehen poliziarena Petersenek egin zuen, *Hunter* filmean, 1986an. Petersenen beste film batzuk hauek dira: *Arma Joven II, The Skulls, sociedad secreta, Cousins, Hard Promises,* edo *Candidata al poder*. Telebistan, *El Kennedy de Massachussetts*-en Kennedytarren aitaren paperarengatik, Urrezko Globoa irabazi zuen.**

KIROLARI APARTA

### Gaztetan, antzerkian sartu baino lehen, kirola egitea zen haren denbora-pasa gustukoena

**Alboko irudia Billy Petersen Boiseko ikastetxe baten zebilen garaikoa da, 1972koa. Orduko adiskide Michael Brunelle-k utzitako argazkia da. Brunellek azaltzen duenez, Petersen ikasketetarako oso pertsona argia izan arren, "liburuak baino gehiago, kirola eta ariketa fisikoa zituen gustuko". "Amerikar errugbia eta saskibaloia ziren haren pasioak; kirola egitea eta adiskideekin ibiltzea ziren haren denbora-pasa gustukoenak". "Oñatin izan ginenean, elkarrekin Aloñara joan ginenekoa gogoratzen dut". Garai hartan, Petersenek ez zuen antzerkiarekin harremanik.**

**Gerora ere aisialdian ariketa fisikoa gustuko izaten jarraitzen du Petersenek. Duela bi urte Oñatin izan zenean, Urbiara igotzeko gogoarekin etorri zela dioskute hemengo lagunek.**



# Urtarrilak 17-24

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► ***Natatxa* umeendako antzerki lana** izango da bihar, zapatua.

### BERGARA

► ***Palabrarismos* antzezlana** jokatuko du Txalo antzerki taldeak gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

### ELORRIO

► ***Ai, ama!* antzezlana** jokatuko du Hika Teatroa taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► ***El hombre que confundió a su mujer con un sombrero* antzezlana** eskainiko du Txalo taldeak datorren egubakoitzean, hilaren 24an, unibertsitatean, 22:30ean.

**Haurrentzako psikomotrizitate saioak**

Haurrari aukera eman, denbora eta gune zehatzean eta materiala egokituz, bere jolas eta mugimenduaren berri hazkuntza armonikoa garatu dezan. Helburuak: komunikazio eta harreman bideak aurkitzea, hazkuntza prozesuan autonomia garatzea eta haurrengan ekintzarako eta zortze lanerako gogoa indartzea. Astero ordu bat. Adina 3-4 urte. Taldeak mugatuak.

MUGI
Psikokomotrizitate prebentzio eta laguntza zentrua
943 77 08 05 • ARRASATE

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Benidorm-era bidaia** antolatu dute Basotxoko erretiratuek, apirilaren 27tik maiatzaren 11ra. Izena emateko, joan lehen bailehen Basotxo elkartearen bulegora, 11:30etik 12:30era bitartean.

### ARRASATE

► **AHT Gelditu taldeak antolatuta,** Abiadura Handiko Trenaren aurkako ekitaldi kulturala izango da urtarrilaren 24an. Herriko plazan elkartuko dira, 19:00etan.

### DEBAGOIENA

► **Baserri ingurunean sortutako plastikoen bilketa egunak** finkatu ditu Deba Garaiko Mendi Nekazaritza elkarteak. Hurrengo bilketa eguna otsailaren 26a izango da. Bilketa lekuren bat aldatu nahi izanez gero, deitu 943 76 25 47 telefonora.

### ELGETA

► **Imsersok bainuetxe programa antolatu du,** eta izena emateko azken eguna datorren martitzena izango da, urtarrilak 21. Horretarako, jo lehen bailehen udaletxera.

### ESKORIATZA

► **Atxorrotx hirugarren munduari laguntzeko elkarteak** bazkideak behar ditu. Hondurasen eta Boli Kostan bost proiektu ditu martxan, eta horiei elkartasuna adieraziko dieten bazkideak behar ditu. Horretarako, deitu lehen bailehen 943 71 53 85 telefonora.

### OÑATI

► **Holiday zirkoaren emanaldia** izango da asteburuan. Gaur, egubakoitza, eta etzi, domeka, 19:00etan izango da emanaldia; bihar, zapatua, 17:00etan eta 19:00etan. Okunbardin izango da.

## LEHIAKETAK

### ARRASATE

► **Gazteen kontseiluaren logotipoa** aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. Arrasaten bizi, ikasi edo lan egiten duten 5etik 30era artekoek parte hartu ahal izango dute. Bidali lanak honako helbidera: Udaleko gazteendako informazio zerbitzua; Biteri etorbidea, 3; 20.500 Arrasate. Argibideetarako, deitu 943 77 00 65 telefonora.

## JAIAK

### ARETXABALETA

► **San Bizente eguna** ospatuko dute Areantza auzokoek urtarrilaren 22an, eguaztena. Arratsaldean, soinu jotzaileen eskutik ongi etorria izango da; 17:00etan, meza San Bizenteko ermitan, eta gero, Garaikoraino joango dira, solasaldia egiteko.

### BERGARA

► **San Antonabat** jaiak ospatuko dituzte San Anton auzoan, gaurtik domekara bitartean.

► **San Bixente** eguna ospatuko dute Parteittin, Angiozarren, hilaren 19an eta 20an.

### DONOSTIA

► **Bertso Eguna 2003** ospatuko dute urtarrilaren 25ean, datorren zapatuan, Donostiako udalaren eta Bertsozale Elkartearen eskutik. Bi ekitaldi izango dira: batetik, goi mailako bertsolarien emanaldia, Kursaalen, 18:00etan; gero, afaria eta jaialdia, Zubietako sagardotegi batean. Sarrerak salgai daude honezkero: 943 21 77 98 telefonora deituta eskura ditzakezue, edo www.bertsozale.com orrian.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Gorputz lan bioenergetiko taldea** antolatu du Arrasateko Yoga Elkarteak. Urtarrilaren 29etik martxoaren 26ra arte egingo dute lan, eguaztenero, 18:30ean. Izena emateko, jo elkarteko kideren batengana.

### GIPUZKOA

► **Alpinismo ikastaroa** antolatu du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak, otsailaren 1erako eta 2rako, Pirinioan. Hobekuntza mailako ikastaroa izango da. Izena emateko epea urtarrilaren 28an bukatuko da. Horretarako, deitu 943 46 14 40 telefonora, astelehen, eguazten edo eguenean.

### OÑATI

► **Afektibitatearen eta sexualitatearen gaineko jardunaldiak** antolatu ditu Elkar Hezi ikastetxeko Aloña gurasoen elkarteak. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko ikasleen gurasoei zuzendutako ekintza da. Hurrengo jardunaldiak hilaren 21ean, 22an eta 23an izango dira, Santa Marina plazako 2.ean, 18:00etan eta 19:30ean.



► KONTZERTUAK

## BERGARAKO BI HAMARKADAKO ROCK TALDEAK, KONTZERTUAN

Bergarako gaztetxeko arduradunek azken bi hamarkadotan Bergaran izan diren rock talde guztiak omendu dituzte. Horretarako, Astindu euren fanzinearen zenbaki berezia prestatu dute, 35 talde bergararren historia errepasatuaz, eta taldeon abesti banarekin konpakto bat egin dute. Horrez gain, bi kontzertu antolatu dituzte. Honako taldeek joko dute: Cool Panic, Supercools, Fly Shit, Frenopatics, Fragel Rock, …, Zartateko, Destrucción, N.C.M. eta Goiko Rock taldeek, gaur; eta Aitzol Mujika, Uko, Black Sheeps, Dixie 900, Dog bite, Elebators, X-at, Ednis, Ostiada Oi!, Factoría 77 eta Muskitxuk, bihar. Sarrerak hiru eurotan daude salgai; sarrera, aldizkaria eta eta konpaktoa batera zortzi eurotan salduko dituzte.

**Non:** Bergarako gaztetxean. **Noiz:** Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua. **Ordua:** 22:00etan.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADU-ONDOKO PROGRAMA

ISM-MSI
ENPRESETARAKO ERP
INFORMAZIO-SISTEMATAN MASTERRA

HELBURUA
Enpresa bateko informazio-sistemek berenganatzen dituzten esparru desberdinen berri ematea, BAAN-ERP moduluetan eta e-businessetara zuzendutako teknologietan oinarriturik. Masterra burutu ondoren, ikasleak e-business eta ERP proiektuak kudeatu eta garatzeko gaituta egongo dira.

IKASGAIAK
1.- Proiektuen Kudeaketa
2.- Ekonomia eta Finantza Esparrua
3.- Salmentak eta Merkataritza Kudeaketa
4.- Hornikuntza eta Logistika
5.- Produkzio-esparru funtzionala
6.- Software-aren pertsonalizazioa (SQL programazioa, BAAN TOOLS)
7.- E-business teknologiak (CRM, B2C, B2B, e-procurement,...)
8.- Azken proiektua

EGUTEGIA
• Ikasturtea: 2003ko otsailaren 17tik abenduaren 19ra
• Ordutegia: 16:00etatik 20:00etara (astelehenetik ostiralera)
• Izen-emateko epea: 2003ko otsailaren 14ra arte

ENPRESA LAGUNTZAILEAK
STERIA (BULL), FAGOR TALDEA, WATERMARK (VANENBRUG), CAF, ULMA TALDEA, IKUSI, GAMESA, MCC, BAAN COMPANY

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA
Enpresa Zientzien Fakultatea
Larraña, 16 - 20560 Oñati
Tlfnoa: 943 71 80 09 Faxa: 943 71 81 62
msi@eteo.mondragon.edu www.eteo.mondragon.edu/acad



## AMATASUNAREN GAINEKO ANTZEZLANA

Arantxa Iturbe idazlearen *Ai, ama!* liburuan oinarritutako antzerki lana jokatuko du Hika taldeak gaur, egubakoitza, Elorrioko Arriola aretoan, 22:30ean. Amatasunaren inguruko kezkak eta gogoetak plazaratuko dituzte Ainhoa Aierbek, Miren Gojenolak eta Pilar Rodríguez-ek.

# MUSIKA

### ARRASATE

► **Nothing Without** skate eta hardcore fantzinearen bosgarren urteurrena dela-eta, jaialdia izango da bihar, zapatua, Ekaitz tabernan, 19:00etan. Fly Shit taldeak joko du, eta disko jartzaileen emanaldia izango da.

### ARETXABALETA

► **Tos de caballo, KAF eta Latex** taldeek punk-hardcore estiloko kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Segidan, disko jartzaile baten emanaldia izango da.

### BERGARA

► **The Chronics eta The Dirties taldeen kontzertua** izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Organo Erromantikoaren Nazioarteko IV. Zikloaren barne,** Wieland Meinhold organo jotzaile alemaniarraren kontzertua izango da bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

► **Hammerfall, Masterplan eta Nostradameus taldeen kontzertua** izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:00etan. Sarrera txartelak 21 eurotan izango dira salgai.

► **The Kagas eta Kañeria 13 taldeen emanaldia** izango da datorren egubakoitzean, hilaren 24an, Jam aretoan, 22:00etan. Txartelak 10 eurotan salduko dituzte.

### ESKORIATZA

► **Anari kantautoreak** emanaldia egingo du etzi, domeka, gaztetxean, 19:30ean.

# ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Drogen inguruko erakusketa** izango da ikusgai Monterron kultura etxean hilaren 20ra bitartean. 21etik 27ra, Bergaran izango da erakusketa, kultura etxean, honako ordu eta egunetan: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-21:00, eta zapatu eta jai egunetan, 12:00-14:00.

### BERGARA

► **Beatriz Pérez margolariaren** olio erakusketa dago Nahikari tabernan, urtarril osoan zehar.

► **Azur Gallastegiren argazkiak** daude ikusgai gaztetxean, otsailera arte.

### OÑATI

► **Vasco-Navarro trenaren gaineko** erakusketa dago kultura etxean, lan egunetan 10:30-13:30 eta 16:30-20:30, eta zapatu eta jai egunetan, 11:00-14:00 eta 18:00-20:00. Bisita gidatua erreserbatzeko, deitu 615 78 12 25 telefonora.

# Zinema

### ARRASATE

**■ ALAI ZINEMA**

***8 mujeres***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

***Anjé, la leyenda del Pirineo***
Zapatua eta domeka: 17:00.

### BERGARA

**■ NOVEDADES**

***Kamchatka***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Dragon hill***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***La guerrilla de la memoria***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

**■ SANTA ANA**

***8 mujeres***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Santa Claus 2***
Zapatua eta domeka: 17:00.

**■ KULTURA ETXEA**

***Escape to paradise***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

**■ UNZAGA**

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

**■ RIALTO**

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:30.

### GASTEIZ

**■ GURIDI**

***Otra terapia peligrosa***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 17:30, 21:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:30.

***La flor del mal***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Transporter***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Spy kids 2: la isla de los sueños perdidos***
Egunero: 17:30, 20:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***La chica de París***
Egunero: 22:30.

***Al sur de Granada***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

**■ MIKELDI ZINEMAK**

***Oscura seducción***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***No dejaré que no me quieras***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Las cuatro plumas***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:45.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 19:45, 23:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:45, 23:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***La chica de París***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***El planeta del tesoro***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza: 18:15
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:30.

***El pianista***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Más de mil cámaras velan por tu seguridad***
Egubakoitzetik domekara: 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

**■ FLORIDA-GURIDI**

***Cosa de brujas***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Amén***
Egunero: 22:30.

***El planeta del tesoro***
Egunero: 12:30, 17:30.

***El jardín de la alegría***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Kamchatka***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Los lunes al sol***
Egunero: 17:30, 20:00.

***Una casa con vistas al mar***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Sweet sixteen***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Trece campanadas***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka, 17:00, 19:45, 22:30.

**■ STER ZINEMAK**

***El pianista***
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 21:30, 00:45.
Domeka: 18:00, 21:30.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza: 18:10, 20:10, 22:25, 00:25.
Zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:25, 00:25.
Domeka: 16:10, 18:10, 20:10, 22:25.

***El planeta del tesoro***
Zapatua eta domeka: 16:00.

***Spy kids 2: la isla de los sueños perdidos***
Egubakoitza: 18:05, 20:15.
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:05, 20:15.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza eta zapatua: 22:00, 00:05.
Domeka: 22:00.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egunero: 18:00.

***Transporter***
Egubakoitza: 18:30, 20:40, 22:55, 01:05.
Zapatua: 16:15, 18:30, 20:40, 22:55, 01:05.
Domeka: 16:15, 18:30, 20:40, 22:55.

***La flor del mal***
Egubakoitza: 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Zapatua: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Domeka: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50.

***Oscura seducción***
Egubakoitza: 18:15, 20:20, 22:30, 00:30.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:20, 22:30, 00:30.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:20, 22:30.

***Trece campanadas***
Egubakoitza: 18:20, 20:35, 22:50, 01:10.
Zapatua: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:10.
Domeka: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50.

***La ciudad de los fantasmas***
Egubakoitza eta zapatua: 22:20, 00:50.
Domeka: 22:20.

***Wasabi***
Egubakoitza: 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Zapatua: 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Domeka: 16:25, 18:25, 20:25, 22:25.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

**■ YELMO CINEPLEX**

***Transporter***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:10, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Amén***
Egubakoitza eta zapatua: 16:50, 19:20, 21:50, 00:20.
Domeka: 11:40, 16:50, 19:20, 21:50.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 11:30, 16:00, 17:00, 19:30, 20:30, 23:00, 00:00.
Domeka: 15:30, 17:00, 18:45, 20:30, 22:00.

***Las cuatro plumas***
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 21:15, 23:45.
Domeka: 18:30, 21:15.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 11:50, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:50.
Domeka: 12:00, 15:45, 17:50.

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza eta zapatua: 19:50, 21:55, 23:55.
Domeka: 19:50, 21:55.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:35, 22:45.
Domeka: 11:35, 15:35, 18:40, 21:45.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 19:50, 00:35
Domeka: 15:30, 19:50.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10.
Domeka: 11:55, 16:10.

***La ciudad de los fantasmas***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 22:15.
Domeka: 11:55, 17:30, 22:15.

***Más de mil cámaras velan por tu seguridad***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:00, 20:10, 22:10, 00:15.
Domeka: 15:50, 18:00, 20:10, 22:10.

***The ring: la señal***
Egubakoitza eta zapatua: 15:35, 17:50, 20:05, 22:25, 00:45.
Domeka: 11:40, 15:35, 17:50, 20:05, 22:25.

***Cosa de brujas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:45, 20:05, 22:15, 00:30.
Domeka: 11:55, 15:30, 17:45, 20:05, 22:15.

***Trece campanadas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:50, 20:15, 22:25, 00:35.
Domeka: 12:10, 15:40, 17:50, 20:15, 22:25.

***Wasabi***
Egubakoitza eta zapatua: 16:55, 18:50, 20:50, 22:40, 00:35.
Domeka: 12:00, 16:55, 18:50, 20:50, 22:40.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Los lunes al sol: ●●●●● / Escape to paradise: ●●●● / El señor de los anillos: las dos torres: ●●● / 8 mujeres: ●●●***

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### EL GRAN DICTADOR

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**ZUZENDARIA:** Charles Chaplin.
**AKTOREAK:** Charles Chaplin, Paulette Godard, Jack Oakie.

Eguberri egunean 25 urte bete ziren Charles Chaplin artista handia hil zela. Eta orain, aukera izan dugu 1940an egindako *El gran dictador* filma gure zinema aretoetan berriro ikusteko. Filmak urte asko izan arren, gure pantailetan ez zen estreinatu 1976ra arte. Lehen, Chaplin-en lanek telebistetan euren tokia izaten zuten sarritan: haren lan laburrak, film luzeak… Orain, ordea, beste era bateko saio batzuek hartzen dituzte telebistako ordu oneak. Uste dut horregatik, jende asko dago, batez ere gazteak, Chaplin-en lana ezagutzen ez dutenak. Hori dela eta, *El gran dictador* oso aukera ona da zinemak eman duen artista handienetariko bat ezagutzeko, nahiz eta, beharbada, beste lan batzuk perfektuagoak izan: *Luces de la ciudad, Tiempos modernos, Monsieur Verdoux* edo *Candilejas,* esaterako.

*El gran dictador* egin zen urtean, Ameriketako Estatu Batuak oraindik II. Mundu Gerran sartu barik zeuden, eta interes handiak zeuden jokoan. Eta, halako gatazkak gertatzen direnean ohi den bezala, mandatariek ez dute izaten oso ideia garbiak. Horrela, eskertzeko modukoa izaten da artista argitsu bat agertzea, munduaren egoerari buruz hitz egiten. Lan honetan, Chaplin-ek, diktadoreen krudelkeria, handitasun amets eroak eta izaera maltzurra kritikatzeaz gain, sentipenak eta balioak galtzen ari den munduaren salaketa egiten du. Horrexegatik, filmaren diskurtsoak gaur egungo egoerarako baliagarria izaten jarraitzen du.



Chaplin barietate-ikuskizunetik eta zinema mutuko mundutik zetorren, eta film honetan mundu biek badute euren tokia. Ez dira falta zinema mutuan izaten ziren korrikaldiak, kolpeak eta jausialdiak, ezta pantomimari lotutako esketxak ere. Istorio lotu eta homogeneoa baino gehiago, esketx luzeen eraginez gorputza hartzen duen satira da: Hynkel munduko bolarekin dantzatzen, Listen, hungariar dantzarekin, bizar moztea egiten, Napoloni-ren bisita, eta abar... Ikustea merezi duten eszenak badira ere: budinetan jarritako txanponen eszena begietan eta buruan finkatuta geratzen da. Eszena hori zinema arte bihurtzen duten horietakoa da.

ANTONIO ZABALA

SARE İNMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

ETXEBIZITZAK

ARRASATE
• 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
• 110 m². Hiru logela, bainugela bi, egongela eta ganbara. Oso ederra. Oso eguzkitsua eta duela urtebete berritua.

BERGARA
• 75 m², eguzkitsua eta 3.500m²-ko lursail komunitarioarekin: parkinga, txokoa...Prezioa: 126.212 euro/ 21.000.000 pta.
• 51 m², egongela, 3 logela, sukaldea, bainugela eta ganbara. 16.000.000 pta.

ANTZUOLA
• Duplexa. 87 m². Logela bi, jangela-egongela, bainugela bi eta sukaldea. Ia berria. Guztiz hornituta. Oso eguzkitsua.

LOKALAK
• **Arrasate**: Ferrerias kalean 201 m²-ko lokala salgai. Errentan hartzeko aukera.
• **Arrasate**: Altamiran 98 m² salgai. Erakusleihoa dauka eta oso ondo dago. 10.000.000 pta.
• **Bergara**: 230 m²-ko lokal industriala salgai. Lehenengo solairuan dago eta 1.000 kiloko karga-jasogailua dauka. Prezioa: 12.500.000 Pta.

Korosti INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
• Martoko. 65 m². Berritzeko.
• Irizar. 85 m².
• Koldo Elizalde 85 m².
• Telesforo Aranzadi. 72 m². Berritzeko.
• ANTZUOLA: Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**
• Jardunean dagoen taberna. Hornituta. Aukera paregabea.
• Jardunean dagoen sagardotegia.
• Jatetxe-taberna berritzeko.

**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**

**BASERRIAK**
• Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
• Osintxu, Gabiria, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

ELORRION
ETXEBIZITZAK SALGAI
94 682 11 00 / 610 20 01 14

ELORRION
ETXEBIZITZAK SALGAI
• Apartamentu berria. 45 m². Bi logela, bainugela, sukaldea, egongela.
• Duplex berria. 120 m². Lau logela, egongela, sukaldea. 100 m²-ko lorategia.
• Txaleta. 100 m². Sei logela, bi bainugela, bi egongela. 2000 m²-ko lursaila.
• Apartamentuak. 45 m². Logela bat, bainugela, sukaldea eta egongela.
• 220 m². Hiru logela, bi bainugela, bi egongela (bat handia), terraza.

ELORRION
ETXEBIZITZA
ERRENTAN
• Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. 80 m².

**ATXONDO.** Txalet adosatua salgai. Bost logela, sukaldea, egongela, hiru bainugela, garaje bikoitza eta txokoa.

**ARRASATE.** Apartamentu berria ematen da errentan erdialdean. Sukaldea, bi logela, bainugela eta egongela.

OÑATI
ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI
943 71 60 91

ARETXABALETA
TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.
943 77 03 08

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE
NESKA EDO MUTIL BAT BEHAR DA LA ESTRELLA TABERNAN LAN EGITEKO.
943 79 20 82

ARRASATE
OKINDEGI BATERARAKO ZERBITZARIA BEHAR DA.
943 77 14 14 (JOSE MANUEL)

OÑATI
OÑATIKO TURISMO BULEGORAKO ARDURADUNA BEHAR DA.
INTERESATUAK DEITU
943 71 88 08
TELEFONORA
Oñatiko Garapen eta Turismo Ajentzia

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuolan.** Zurrategi plazan duplexa salgai. 87 m2. Hornitu berria. 943 78 70 78.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. 699 18 75 68.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Masterrekan. Hiru logela, egongela, jangela-sukaldea eta bi bainugela. 210.355 euro (35 milioi pezeta). 943 03 46 18 edo 627 90 74 48.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da San Andresen. 629 42 26 54.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasaten** edo Aretxabaletan etxebizitza hartuko nuke errentan. 943 79 87 40.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela bat ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. Langileendako aproposa. 943 79 05 26.

### 106. BESTELAKOAK

**Bergara.** Borda bat erosi edo baserri bat errentan hartuko nuke. 605 74 45 03.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Antzuola.** Garaje itxia salgai. 670 49 87 40.

**Bergara.** Garajea salgai Ozaetan. 943 76 00 12 edo 617 25 04 13.

**Bergara.** Garajea saltzen dut Ibargarai kalean. 943 76 37 84.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garibaiko dorrean (BBVA) garajea errentan ematen da. 70 euro hilero. 650 46 44 01.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** 135 m²-ko lokala salgai edo errentan Loramendi kalean. Prezio interesgarria. 652 70 41 06.

**Arrasate.** Erdiko kalean lokala salgai. 60 m². Errentan hartzeko aukera. Gauez deitu edo mezua utzi. 943 79 42 23.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. 657 70 09 59.

**Arrasate.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Utzi mezua erantzuten ez badugu. 696 40 40 67.

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Gauez deitu. 943 76 44 54.

**Bergara.** Emakumea gertu lan egiteko. 639 46 50 15.

**Bergara.** Esperientziadun neska gertu etxeetan garbiketak egiteko, orduka. 943 76 50 58.

**Bergara.** Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. 943 76 23 49 edo 943 76 97 05.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Neska gertu hainbat lan egiteko: garbiketa lanak, umeak edo zaharrak zaindu... Blanca. 696 70 85 49.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate** eta Debagoiena. Itxura ona duen emakumea jangelan lan egiteko gertu. Tituluduna eta esperientziaduna. Automobil propioa. Ordua, 9 euro. 639 23 59 70.

**Bergara.** Emakumea lanerako gertu (umeak, garbiketak...). Goiz eta arratsaldez. 943 76 36 18.

**Bergara.** Hamazazpi urteko neska gertu aste bukaeretan taberna baten lan egiteko. Deitu 16:30etik aurrera. 680 68 32 10.

**Zerbitzaria.** Emakumea gertu jatetxeren baten zerbitzari lanak egiteko. 636 53 70 42.

**Bergara.** Neska gertu etxeren baten lan egiteko, arratsaldeetan. Lali. 606 84 16 46.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Neska behar da DBHko 3.mailako gazte bati eskola partikularrak emateko. Euskalduna izatea komeni da. 943 79 82 24.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Behar bereziak dituzten umeendako laguntza eskolak ematen dira. 635 70 88 88.

**Arrasate.** Heziketa bereziko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu Lehen Hezkuntzako umeendako. Oihana. 943 77 21 43 edo 658 73 93 32.

**Debagoiena.** Goi mailako ingeniari industriala eskola partikularrak emateko gertu. Esperientzia handia. Matematika, fisika, kimika, marrazketa, teknologia, elektrizitatea, ingelesa. Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Oñati.** Ingeles Filologian lizentziaduna gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. 616 45 23 99.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Galloper** 4x4 ibilgailua salgai. 2500TDI. Oso ondo dago. 54.000 Km. 659 87 47 60.

**Audi A4** 1.9 TDi autoa salgai. 110 ZP. 15.000 euro. 660 42 37 72.

**BMW** K100 LT motoa salgai. 3.000 euro. 943 76 17 64.

**Citroën** AX GT autoa (SS-AJ) salgai. 699 20 56 57.

**Citroën** ZX 2.1 16 v (SS-AN). Berde iluna. F.E. Oso ondo dago. 609 98 04 09.

**Citroën** ZX salgai. Diesela. Merkea. 670 33 68 21.

**Discovery** 2.5 TDI. Oso ondo zainduta dago. Prezio interesgarria. 652 77 40 03.

**Peugeot** 406 2.1 TD Break autoa salgai. Hagunak (llantak), CDa. 676 97 54 44.

**VW-**Transporter furgoneta salgai. Kanpinerako prestatuta. 9.000 euro. 616 48 98 14.

**Yamaha** XJ 600 motoa salgai. 900 euro. 943 76 17 64.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akuarioa** salgai. Bigarren eskukoa. 420 litro eta 150x50x70 cm. Mahaiarekin eta osagarri guztiekin. Prezioa: 390 euro. 945 22 00 21.

**Eskusoinua.** 120 beheko nota dituen eskusoinua salgai. 943 79 53 36.

**Egurra leuntzeko** makina salgai. Joya markakoa. Ia berria. 943 76 60 64 edo 646 12 11 50.

**Errepideko** bizikleta salgai. Bugno koadroa (neurria: 56). Grupo Shimano 600. Pedal automatikoekin. Sidi zapatak opari (neurria:42). Prezioa: 390 euro. 18:00etatik 22:00etara. Xabier. 946 58 28 64.

**OMP** markako autorako aulkia salgai. Ondo dago. 120 euro. 699 10 56 67.

**Txabola** salgai Oñatin. Bi solairu dauzka. 180 m². Ura dauka, eta bidea bertaraino. Argindarra jartzeko aukera. 616 00 34 29.

### 802. EROSI

**Reflex** argazki kamara erosiko nuke. 660 56 26 47.

### 803. EMAN

**Besaulkiak.** Oso ondo dauden marroi koloreko Skyko bost besaulki emateko dauzkat. Goizean, eguerdian edo gauean deitu. 943 79 37 97.

### 806. GALDU

**Arrasate**. Audifonoa galdu nuen Arrasaten, San Frantzisko elizaren atzeko aldean, abenduaren 27an. 943 77 14 04.

**Bergara.** Larruzko diru-zorro more bat galdu dut Egino Malleako plazatxoan; koloreetako harri txiki bat dauka erdian. 669 14 33 65.

NEPTUNO
AKUARIOFILIA DENDA BERRIA
ITSAS AKUARIOAK ETA TROPIKALAK
Serafin Ajuria 2, behea • GASTEIZ
(Adriano VI.a kalearen izkinan dago)
Tel.: 945 22 00 21 / ggv@euskalnet.net
OSAGARRIAK, LANDAREAK ETA UR HOTZEKO ARRAINAK
10:00etatik 13:30era / 16:30etik 21:00etara.
Astelehen goizetan itxita.

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

## Arrasateko Gazteen Kontseiluaren LOGOTIPOA AUKERATZEKO LEHIAKETA




**Parte-hartzaileak:** Arrasaten bizi, lan egin edo/eta ikasten duten gazteak izango dira.

Hiru kategoriatan banatuko dira parte-hartzaileak:
A). Kategoria: 5 -12 urte bitarteko gaztetxoak.
B). Kategoria: 13-17 urte bitarteko gazteak.
D). Kategoria: 18-30 urte bitarteko gazteak.

**Gaia:** Hainbat lagunek egindako lan eskergaren emaitza da Gazteen Kontseilua, herri erakundeekin solaskide izango den gazteen elkarrekintzarako plataforma bat, alegia. Edozein gaztek ideiak, proposamen eta zalantzak aurkezteko aukera izango du hor.

**Modalitatea:** Lanak zuri-beltzean zein koloreetan izan daitezke. Teknika librea izango da.

**Sariak:** Hiru sari banatuko dira, kategoria bakoitzean bana:

A). Kategoria: jostailu sorta.
B). Kategoria: kirol material sorta.
D). Kategoria: 750 euro

**Lanen Berezitasunak**

Formatua:
**a eta b kategorietan:** logotipoa folio tamainako kartoi mehe zuri baten aurkeztu beharko da.
**d kategorian:** logotipoaren tamaina gutxienez A3 eta gehienez A1 izango da.

Kontuan izanik logotipoak edozein tamainatan ulergarria izan behar duela, nahikoa izango da kopia bat bidaltzea.

Logotipoan **Arrasateko Gazteen Kontseilua** leloa azaldu edo aipatu behar da.

Originalak, inoiz sarituak, argitaratu edo emititu gabeak izango dira lanak.

Helbide honetara bidali behar dira lanak:

**Udaleko Gazteentzako Informazio Zerbitzua**
Biteri etorbidea 3 • 20500 ARRASATE
Tel: 943 77 00 65
e-mail: gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

Aurkezteko epea: lanak aurkezteko epea 2003ko urtarrilaren 31n amaituko da.

ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila

## AIPAGARRI

### Jon Andueza

ARRASATE



Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek Euskal Telebistarako egin duten *Trikitraka Trikitron* saioaren zuzendaria dugu Jon Andueza arrasatearra. Zuzendaria izateaz gain, berak idatzi ditu saiorako gidoiak ere, Mariam Porcell neskalagunarekin batera.

### Alberto Iñurrategi

ARETXABALETA



Espainiako Mendi Federazioak ematen duen Urrezko Piolet saria eskuratzeko atarian geratu da Alberto Iñurrategiren Annapurnarako espedizioa. Horixe zen saria jasotzeko aukera zuen espedizioetako bat, baina Espainiako Federazioko txartela ez zutenez, saririk ez ematea erabaki zuten.

### Bixente Azkarate

ARRASATE



Arrasateko Egipe elkarte gastronomikoak 25 urte bete ditu. Urteurren hori ospatzeko, elkarteko beterano batzuk liburu baten bildu dute hogeita bost urte horietako elkartearen historia. Bixente Azkaratek prestatu du liburua, eta elkartearen sorrera eta nondik norakoak azaldu ditu hantxe.

## JAIOTAKOAK

**Aritz Zubia Arana.** Aramaion, abenduaren 27an.
**Amaia Iñarra Mateo.** Aramaion, abenduaren 27an.
**Oier Villar Mendibil.** Bergaran, urtarrilaren 6an.
**Uxue Ugalde Urkiola.** Oñatin, urtarrilaren 6an.
**Naiara Conde Fernández.** Aretxabaletan, urtarrilaren 6an.
**Aitor Altube Orueta.** Oñatin, urtarrilaren 7an.
**Miren Murillo Mateo.** Eskoriatzan, urtarrilaren 8an.
**Beñat Usandizaga Karrikondo.** Arrasaten, urtarrilaren 9an.
**Sara Aarasa Halimi.** Bergaran, urtarrilaren 9an.
**Veselina Dimitrova Trendafilova.** Bergaran, urtarrilaren 9an.
**Andoni Díaz De Pedro.** Bergaran, urtarrilaren 11n.
**June Dieguez Bouzon.** Arrasaten, urtarrilaren 13an.
**Mikel Jurado Lens.** Oñatin, urtarrilaren 13an.

## HILDAKOAK

**Felix Barandiaran Zaldibar.** Eskoriatzan, abenduaren 30ean. 71 urte.
**Teodora Lizarbe Orgoiti.** Aretxabaletan, urtarrilaren 4an. 88 urte.
**Angela Okaranza Zuloaga.** Aretxabaletan, urtarrilaren 8an. 93 urte.
**Julian Lafuente Ortega.** Arrasaten, urtarrilaren 9an. 73 urte.
**Petra Libarona Lopetegi.** Arrasaten, urtarrilaren 11n. 96 urte.
**Andrea Prieto Mangas.** Arrasaten, urtarrilaren 11n. 38 urte.
**Eugenio Zubizarreta Arregi.** Aretxabaletan, urtarrilaren 11n. 87 urte.
**Jose Rebollo Manzano.** Oñatin, urtarrilaren 11n. 78 urte.
**Bittori Umerez Guridi.** Bergaran, urtarrilaren 13an. 89 urte.
**Maria Cruz Lamata Huergo.** Arrasaten, urtarrilaren 14an. 73 urte.
**Margarita Santos Puñal.** Arrasaten, urtarrilaren 15ean. 49 urte.
**Pilar Lete Jausoro.** Arrasaten, urtarrilaren 15ean. 79 urte.
**Alicia Agirre Uriarte.** Bergaran, urtarrilaren 15ean. 69 urte.
**Eusebio Ibabe Iriarte.** Oñatin, urtarrilaren 15ean. 76 urte.



**Miren Murillo Mateo**
Eskoriatza • Urtarrilaren 8a • 3,400 Kg. Gurasoak: **Dioni Mateo** (Aretxabaleta) eta **Josemi Murillo** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Ane Urizar Peñakoba**
Arrasate • Urtarrilaren 8a • 3,400 Kg. Gurasoak: **Txarli Urizar** (Elorrio) eta **Maite Peñakoba** (Arrasate). Argazkian, amarekin eta **Irati** ahizparekin.



**Naiara Conde Fernández**
Aretxabaleta • Urtarrilaren 6a • 3,300 Kg. Gurasoak: **Ana Mari Fernández** (Aretxabaleta) eta **Juanjo Conde** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.



**Yurema Ferrero Regeiro**
Oñati • Urtarrilaren 13a • 3,300 Kg. Gurasoak: **Rakel Regueiro** (Oñati) eta **Victor Ferrero** (Argentina). Argazkian, osaba Igorren besoetan.



**Andoni Díaz De Pedro**
Bergara • Urtarrilaren 11 • 3,600 Kg. Gurasoak: **Belen De Pedro** (Bergara) eta **Jose Manuel Díaz** (Bergara). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Ageda Irañeta** eta **Antonio Uribe-etxeberria** bergararrek 50 urte bete dituzte ezkonduta. Urtarrilaren 9an, hain zuzen ere, ospatu zituzten **urrezko ezteiak**, euren senitartekoekin batera. **Zorionak**, bikote, eta urte askotarako familia osoaren partetik; batez ere, **zuen biloba** Mikel, Ander, Eneko, Ibai, Irati, Markel, Alazne eta Saioaren partetik!

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 75 €.

ESKER ONA

### Rosa Bidaola Arbide



**Bergara**n hil zen 2003ko urtarrilaren 8an, 86 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

### Manuel Muñoz Jurado



**Bergara**n hil zen 2003ko urtarrilaren 7an, 78 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

### Eugenio Zubizarreta Arregi



**Arrasate**n hil zen 2003ko urtarrilaren 11n, 87 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

### Migel Igarza Ugarte



Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 19an, 11:30ean, **Antzuola**ko Errukizko Amaren parrokian

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

### Felix Igartua Ugalde



Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 19an, 11:30etan, **Angiozar**ko San Migel elizan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

**ZAPATUA, 18**

Goizaldean oso lainotuta izango ditugu zeruak, eta euri txikia egingo du, tarteka. Orduek aurrera egin ahala, baina, gutxituz joango dira lainoak, eta ostarte batzuk irekiko dira. Tenperaturak pixka bat gora egingo du. Haizea, berriz, hegoaldetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:**
Lainoak nagusi.
**Errioxa:** Lainoak eta ostarteak.
**Pirinioak:** Lainoak nagusi.

**DOMEKA, 19**

Domeka oso egun lainotsua izango dugu, eta euria izango dugu nagusi, egun osoan. 1.000 metrotik gora, berriz, elurra egingo du. Giroa, beraz, hoztu egingo da; tenperaturak behera egingo du. Haizeari dagokionez, berriz, mendebaldetik ibiliko da, arin.

**Nafarroako Erribera:**
Zaparradak.
**Errioxa:** Egun euritsua.
**Pirinioak:** Zaparradak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**4º C**

ILARGIAREN ALDIAK: URTARRILA

| ilberri | ilgora | ilbete | ilbehera |
|---|---|---|---|
| 2 | 10 | 18 | 25 |

EGUZKIA: URTARRILAREN 19a

Sortu 08:35
Gorde 18:02

## URKULUKO URTEGIA

**Gora eta gora jarraitzen du Urkuluko urtegiko ur mailak, azkeneko hilabeteetan egin duen moduan. Aurreko astean %86,95 zen; oraingo astean, berriz, %88,09.**

**%88**

## ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

**MEZAK**

**Astegunetan**
08:30, 12:00.
**Zapatuetan**
08:30, 12:00, 19:30.
**Domeka eta jaiegunetan**
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

((112))
SOS DEIAK

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrialdiak) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 76 53 40 |
| Oñati | 943 78 23 12 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospitalea | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 79 74 58 |
| Bergara | 943 76 24 40 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Abere hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elkartea | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Kapirixo | 943 71 63 23 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| Arrasate / AED | 943 77 12 28 |
| Aretxabal. / Loramendi | 943 77 09 70 |
| Bergara / Jardun | 943 76 08 19 |
| Eskoriatza / Axtroki | 943 71 54 34 |
| Oñati / Laixan | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 64 80 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## ZENBAKI SARITUAK

| BONOLOTOA | | | | LOTERIA PRIMITIBOA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EGUAZTENA 15 | MARTITZENA 14 | ASTELEHENA 13 | EGUBAKOITZA 10 | Saritzarra DOMEKA 12 | ZAPATUA 11 | EGUENA 9 |
| 06 • 16 • 28 35 • 38 • 48 | 06 • 09 • 15 16 • 27 • 34 | 12 • 24 • 32 36 • 40 • 41 | 08 • 23 • 24 37 • 38 • 45 | 08 • 09 • 16 18 • 29 • 34 | 03 • 15 • 16 26 • 44 • 45 | 09 • 15 • 16 20 • 23 • 25 |
| OSAGARRIA: 41 | OSAGARRIA: 11 | OSAGARRIA: 13 | OSAGARRIA: 21 | OSAGARRIA: 24 | OSAGARRIA: 22 | OSAGARRIA: 27 |
| ITZULKETA: 7 | ITZULKETA: 2 | ITZULKETA: 6 | ITZULKETA: 3 | ITZULKETA: 9 | ITZULKETA: 9 | ITZULKETA: 2 |

| ONCE | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| EGUAZTENA 15 | MARTITZENA 14 | ASTELEHENA 13 | Superkupoia DOMEKA 12 | Kupoitzarra EGUBAKOITZA 10 | EGUENA 9 |
| **11.739** (028 seriea) | **02.072** (006 seriea) | **27.813** (022 seriea) | **36.288** (045 seriea) | **93.907** (046 seriea) | **54.899** (053 seriea) |

*Erakunde hauen laguntzaz*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza
**Antzuolako Udala**
**Aramaioko Udala**
**Aretxabaletako Udala**
**Arrasateko Udala**
**Bergarako Udala**
**Elgetako Udala**
**Eskoriatzako Udala**
**Leintz Gatzagako Udala**
**Oñatiko Udala**





## 'Astebete'

EGUBAKOITZA/ **20:30 eta 22:30**

### Gabon ostean, kirola eta dieta buruan

Gabonak joan dira, eta jendea eguneroko erritmora bueltatu da. Horrekin batera, kirolari eta dietari heldu diete askok. Gai hori landuko du Goiatz Aranak. Adi proposamenei!



## 'Harmailatik tertulia'

ASTELEHENA / **21:15 eta 23:15**

### Futbolaz berbetan astelehenero

*Harmailatik* saioko bigarren atalean solasean arituko gara, astero legez. Hiru gonbidatu lagun hartuta, asteburuak goi mailako kirolean eman duena aztertuko dugu.



## 'Lanabesak'

EGUAZTENA / **20:30 eta 21:15**

### Baserriari eskainitako tarte zabala datorren astean

Bildots garaia heldu da, baita gaztak egiteko garaia ere. Baserriari eskainitako tartean horixe izango dugu hizpide erreportaje zabal baten, *Lanabesak* saioan, eguaztenean.



## 'Sarrera doan'

EGUENA / **20:30 eta 21:15**

### Proposamen ugari dakartza Amagoia Lasagabasterrek

Film bat: *La vida de nadie*; liburu bat: *Ipuin batean bezala*; kontzertu bat: The Kagas. Horiek eta beste hainbat proposamen egingo dizkizue Amagoia Lasagabasterrek eguenean.

## TELEBERRIAK

### GOITB ere kable bidez ikusi ahal izatea eskatu diote Bergarako Jardun elkarteko bazkideek Euskalteli

Euskaltel dagoeneko hasia da gure ibarrean ere telefonia, Internet eta kable bidezko zerbitzua eskaintzen. Eta, baten baino gehiagoren atea joko zuten horren berri emateko. Euskaltelek, telebistaren kasuan, ohiko kanalak eskaintzen ditu, eta herrietakoei dagokienez, probintziaka desberdinak, baina nagusiki hiriburuko kate lokal nagusiak. Debagoienean, Teledonosti (Grupo Correokoa) eta Lokalia TV (Prisakoa ), biak erdaraz. Hortaz, kontuan izanda ibarreko udalak euskarazko telebista bultzatzen ari direla, Euskaltel Debagoienean sartu nahian dabilela, eta ibarrean kablea zabaltzen ari dela, horretan guztian GOITB non geratzen den zalantza sortu zaie Goienari berari, ibarreko hainbat alkateri, euskara elkarteei eta, oro har, herritar askori. Hori horrela, Bergarako Jarduneko bazkideei eskaera bat egitea erabaki du elkarte horretako zuzendaritzak. Hain justu, Euskaltel bere zerbitzua eskaintzera datorrenean, GOITBren beharra azaltzea. Izan ere, gaur egun, norbaitek Euskaltelen eskaintza onartu eta telebistako seinalea kable bidez jasotzen badu, ezin izango du GOITB ikusi, hori, oraingoz, antena bidez zabaltzen delako. Goiena Kooperatiba Elkarteak, gaiaz arduratuta, hainbat neurri hartu ditu arazoa konpontzeko.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Urtarrilaren 17tik 23ra

Goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 17 | ZAPATUA 18 | DOMEKA 19 | ASTELEHENA 20 | MARTITZENA 21 | EGUAZTENA 22 | EGUENA 23 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Sarrera doan**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Astebete**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Astebete**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Herrilan Elgeta**<br>15:30 **Sarrera doan**<br>16:00 **Soinuz blai**<br>16:30 **Astebete** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Herrilan Elgeta**<br>15:30 **Sarrera doan**<br>16:00 **Soinuz blai**<br>16:30 **Astebete** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Astebete**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Harmailatik**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Harmailatik tertulia**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Harmailatik**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harmailatik**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Harmailatik tertulia**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Iparrorratza**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Xeleberri**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Iparrorratza**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Xeleberri**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Lanabesak**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Lanabesak**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Lanabesak**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Lanabesak**<br>23:45 **Amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Lanabesak**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Lanabesak**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Sarrera doan**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Sarrera doan**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Emisio amaiera** |
| 20:30<br>**'Astebete'** | 14:30<br>**'Herrilan Elgeta'** | 14:00<br>**'Iparrorratza'** | 21:15<br>**'Harmailatik tertulia'** | 21:00<br>**'Gaurkoak'** | 20:30<br>**'Lanabesak'** | 20:30<br>**'Sarrera doan'** |

**GOIENA TELEBISTA /** Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

## KAMERAAURREAN



***"Hogeita bi urte joan dira, eta ez da garai ona delako, baina giroa berotu nahian bueltatu gara".***

**Xanti Iparragirre /** Errefuxiatu ohia
"BERRIAK" (2003-01-15)



***"Erakusketa honekin droga mundua erakutsi nahi izan dugu, bere handitasunean, kritika barik eta inongo juizio barik".***

**Ainhoa Moiua /** Oñatiko prebentzio teknikaria
"BERRIAK" (2003-01-14)

## TELEBEGI/ Edorta Arana

# *Euskaltel eta TB lokalak*

Euskaltel gure inguruak kableatzen hasi da. Akaso zurera ere etorri dira telefonoa eta kable bidez telebista eskainiz. Proposamenari baietz esanez gero, Telefonica ahaztu zenezake eta teilatu gaineko antena kendu. Kablez jasoko dituzu telefonoa eta telebista (20 bat kanal, gainera). Ondo, ezta? Baina, sinestezina bada ere, erabaki horrek ondorio sinple eta erraz bezain kaltegarriak ekarri ditzake telebistagintza lokala nahi eta beharrezkoa dela sinesten dugunontzat. Hau da: gaur egun, Euskaltelek eskaintzen dituen telebista kanalen artean ez du GOITB sartzen. TB lokalaren esangurari bizkarra eman eta Debagoieneko biztanleoi Donostiako informazio "lokala" eskaintzen zaigu. To, zentralismoa! Gertuko telebistagintzaren filosofiaren kontra eta euskararen normalkuntzari kalte eginez dabil, momentuz, Euskaltel.

Euskaltel ala GOITB ikusi ahal izatearen artean aukeratu beharrean jartzen banaute, ez daukat zalantzarik.



# ASTEBETE…
## Eta zuk, zer duzu esateko?

Kexak, proposamenak, albisteak… utzi zure mezua gure erantzungailuan: **943 71 23 93**

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko duzu!*

**Egubakoitzero,**
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
**Goiatz Arana**

Goienkaria©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko urtarrilaren 17a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Eneko Barberena/ Idazlea

**Izenburu xelebre samarra jarri diozu zure lehen liburuari: *Igogailuak, Dow Jones eta beste droga batzuk.***

Bai. Sarrionandiari omenaldia egin nahi nion. Hark *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk* izenburuko liburua du. Bestalde, igogailuek eta burtsak badute zerikusia: biak igo eta jaitsi egiten dira, eta biak daude hari batetik zintzilik.

**Ipuin bilduma da liburua. Literatura generoetan horixe duzu gustukoen?**

Baietz esan liteke. Gainera, genero bezala azkena deskubritu dut, orain dela gutxi.

**Zelan definituko zenuke zure idazkera?**

Uste dut irakurtzen momentu ona pasatu gura duen edozeinendako eta buruari buelta pare bat eman nahi dizkionarendako aukerako liburua dela. Edozein lekutan irakur daiteke: autobusean, taberna baten, etxean goxo-goxo, eskolan…

**Literatura lehiaketetan ere lortu izan duzu saririk. Uste duzu lehiaketek balio dutela idazteko zaletasuna bultzatzeko?**

Ni lehiaketen aurkakoa izan naiz beti. Benetan idazteko sormena lantzeko, fantzineak, aldizkariak eta antzerako baliabideak dira egokienak. Lehiaketetan jende askok idazten du, baina horretarako bakarrik. Dena dela, egia da sormen aldetik euren lana egiten dutela lehiaketek; eta askotan, ezinbestekoak dira.

**Dena dela, Zuzenbide ikasketek leku txikia utziko diote zure literaturra zaletasunari.**

Oso arlo ezberdinak dira, eta askotan, ipuin baterako gaia gutxien espero den lekutik edo hitzetatik sor daiteke. Ez dira kontrajarrita dauden esparruak, osagarriak baizik.

**Hartuko zenuke idaztea bizibide?**

Ez dut uste; orain, behintzat, ez. Zaletasun moduan dut, eta ez dut orain nire buruan idazle ikusten. Bihar edo etzi, auskalo!

**Zure ingurukoek, familiakoek eta lagunek, zer esan dizute liburuaren inguruan?**

Denetarik. Pozik daude, eta niri hori transmititu didate. Amamari ez zaio izenburua askorik gustatu, eta lagunek denetik esan didate. Hala ere, animu asko jaso ditut.

**Eta zein izan da zure liburuari azkenaldian bota dioten *piropo*-rik handiena?**

"Ordu betean irakurri nuen!" Poztasun handiena sortzen dit jendeak liburua irakurtzeak. Gero, gustatu edo ez, hori beste kontu bat da.

**Autografo asko sinatu dituzu Durangoko Liburu eta Disko Azokan?**

Bai, baina ez zait batere gustatzen. Lotsa handia pasatzen dut, eta gorri-gorri jartzen naiz. Hala ere, liburua erosi duten ia %100 lagunak izan dira, eta, adarra jotzeko-edo, firmarazi egin didate gehienek.



**"Azkena deskubritu dudan literatura generoa izan da ipuina"**

**"Ez dut uste idaztea bizibide hartuko nukeenik. Orain, zaletasun moduan dut"**

**"Hurrengo liburua, egoten bada, ez dakit zelakoa izango den"**

► *Arrasatearra / 19 urte / Zuzenbide ikaslea*

## PIPERRAUTSA

### *Salem*

Hau ere koinatua dut. Bai, joan den astean GOIENKARIAk elkarrizketatu zuen Polisarioko ordezkaria. Hark aipatzen zuen Ormaiztegiko emaztea nire arreba da, Gurutze Irizar, Fatimetu.

Hori dela-eta, aspalditik eta hurbiletik bizi dut Saharako gatazka. Baita beste euskaldun askok ere, senitartekorik ez izan arren. Asko dira Tindouf-eko kanpamentuetara joandakoak, elkartasuna eta laguntza eskaintzera. Eta asko dira hango umeak hemen hartzen dituzten familiak, urtea joan eta urtea etorri.

Badakizue, hogeita zazpi urtez Nazio Batuen Erakundeak (NBE) behin eta berriz ebatsi du sahararrei dagokiela erabakitzeko eskubidea, eta, hala ere, Marokok tinko jarraitzen du Sahara okupatzen. Bitxia da: formalki oso argi dago zein den konponbidea, eta benetan ez da gauzatzen. Hemen ez dago nazioarteko presiorik NBEren erabakiak betearazteko, are gutxiago indarraren mehatxurik Marokoren aurka.

Eta, urteak aurrera, arazoa gaiztotzen ari da. Marokoarren seme-alaba asko jaio da Sahara okupatuan. Tindouf-en gose arriskua ikusten da. Eta munduan Bushek agintzen du. Saharako petrolioa errazago lortuko du Irakekoa baino, Marokori esker.

Horregatik uste dut Sahararen alde egiten dugunean, ez dugula bakarrik herri hura sostengatzen. Itxaropenari eusten ari gara, egungo laino beltzen gainetik, mundu duin eta justua posible delako itxaropenari.

MIKEL IRIZAR



Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51